

ESKOLA GARRAIOA



**1.600 ikaslek
egiten dute
eskolako
joan-etorria taxi
edo autobusetan**

Zazpi ikasletatik hiruk erabiltzen du egunero

Herritik kanpora mugitu behar izaten dutenek autobusa hartzen dute, eta bertze aunitzek, ordea, herrian bertan, auzotik edo baserritik

eskolako joan-etorria egiteko, autoa edo taxia erabiltzen dute. Gure kontuen arabera, eskualdeko zazpi ikasletik hiru gisa horretara ibil-

tzen da, eta kopurua oraindik haundiagoa da kanpoko Lizeo, Institutu eta Unibertsitateetara joaten direnak kontatuta.

4-6

3 Elkarriketa: Zubietako errota ekomuseo bihurtua

Goitik behera moldatu ondotik, urriaren 11n zabaldu zen Zubietako Ekomuseoa. Lurdes Elizalde da errotari berria, eta berak dioenez, «*errotaren funtzionamenduari harririk ez dago*».



29 Kirolak: Felix Etxeberria txapeladun

Doneztebeko Ferietan jokaturako Euskal Herriko bigarren mailako aizkolaria txapelketan, Sunbillako aizkolaria nagusitu zen. Patxi Mindegia zubietarra bosgarren gelditu zen.

ALE HONEKIN BATERA: Lurra aldizkaria

Nekazal Ganbarako hauteskundeak, Eskualdeko hondakinen kudeaketa eta bertze hainbat gai jorratzen dira 14. zenbakia egin den Lurra aldizkarian.

10 Ekitaldi ugari 'Bai euskarari' kanpainaren barnean

Informazioa eman eta atxikimenduak biltzeaz gain, kultur ekitaldi ugari antolatu dira inguruko herrietan hurrengo egunotan gauzatzeko.





IRIARTE - ECHANDI s.i.

JAVIER IRIARTE OTAMENDI

ASEGURUAK

- ◆ Ibilgailuak
- ◆ Etxebizitzak
- ◆ Komertzioak
- ◆ Tailerrak
- ◆ Istripuak
- ◆ Osasuna
- ◆ PYMES

AHOLKULARITZA

- ◆ Fiskala: IVA, IRPF...
- ◆ Kontabilitateak
- ◆ Laborala: nominak, gizarte segurantzak, autonomoak

ARTEKARITZA

- ◆ Fiskala: IVA, IRPF...
- ◆ Kontabilitateak
- ◆ Laborala: nominak, gizarte segurantzak, autonomoak

Helbide berria:

Kanttonberri, 1

31780 BERA

Tfnoa. eta Faxe: 948 631 169



Martzutza Arropadenda Oparidenda

- Munduko artisautza
- Zilarra
- Zapiak, gerrikoak... eta gisa guzietako osagarriak

Tfnoa.: 948 631 425

Eztegara Pasealekua, 12

BERA



 **ZAPATAK**



DATUAK.....

❖ Lurdes Elizalde zubietarrak betidanik ezagutu du errota, baina hondatua. «Orain ez du zerikusirik umetan ikusten genuenarekin».

❖ Urtebeterako hartu du errotaren ardura «proba egiteko» eta momentuan gustora dago. «Nere lana ikasi dut eta ongi doaie».

❖ Abenduko zubian jendea dexte mugituko dela uste du Lurdesek.

❖ Errota ez dago guztiz osatua oraindik. Bertze tresna eta gauzekin batera, irakurlearen xokoa ere egin nahi dute.

✍ **Lurdes ELIZALDE** Zubietako erroaria

“Errotaren funtzionamenduarekin harritua gelditzen da jendea”

ZUBIETAKO ERROTA MOLDATU ONDOTIK, URRIAREN 11N ZABALDU ZEN. ZENBATSU JENDE PASATU DA GEROTZIKAN?

Zazpirehun bat lagun etorri dira. Gehienak autobusean etorritako ikasleak izan dira. Taldean etorri gero merkeago ateratzen zaie (hamabost lagunetik goiti 200 pezeta eta hortik behera 400). Orain arte inguruko eskola-koak etortzen ziren, baina orain Iruña eta Donostialdekoak ere hasi dira. Ume eta jubilatuak ere 200 pezeta ordaindu behar dute.

ORAIN ARTE IKUSITAKOAREN ARABERA, ZER DA BISITARIEK GEHIEN ESTIMATZEN DUTENA?

Errotaren funtzionamenduarekin harritua gelditzen da jendea. Ekomuseoa da eta altzari zaharrak, harriak pikatze mailuak, errotako tresnak, hareak, egurrezko karretiak... gauza politak eta bereziak badira ikusteko. Jendeari dena gustatzen zaiola uste dut. Tresna hauek zertarako balio duten esplikatzeko. Tresnen artean alperra (olakin eta hortzekin) eta artoa ereiteko marka izanen dira jendearen atentzioa gehien pizten dutenak, baita goldea ere. Honat etortzen diren askok ez dituzte sekula horrela-



«Irakurlearen Xokoan kontsultarako hogeit bat liburu egonen dira»

koak ikusi eta normala da.

ZEIN ORDUTEGI IZATEN DUZUE?

Deituz gero arratsaldetan ere irekitzen dugu. Gainerakoan, asteartetik ortziralerara, 11etatik 1etara eta asteburuetan 11etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 7etara.

ZEIN DA, ZEHAZKI, ERROTAN EGITEN DUTUN LANA?

Atea ireki, artoa eta garia ehotu eta irina saltzeko jartzen dugu. Errotan bertan saltzen dugunaz gain, kanpoko dendetatik ere hasiak dira irina erosten. Kai-kuak, oporrak, zimitzak, gaztainak biltzeko matxarak, makilak, zera-mika, eztia, intxaurrak... saltzen ditugu. Gabonetarako gauza gehiago jarri nahi ditugu. Errota izateaz gain denda ttiki bat ere bada.

MATERIAL DIDAKTIKOA ERE BADUZUE SALGAI?

Orain liburu batzuk

paratu behar ditugu saltzeko. Lau orduko bideo bat ere bada, Zubietan, Ituren eta inguruko herrietako istorioak azaltzen dituena.

ETA BERTAN IRAKURTZEKO XOKO BAT ERE PARATZEKO ASMOA DUZUE, EZ DA?

Bai, errorei buruzko bibliografia kontsultatu nahi duenak aukera izanen du, Irakurlearen Xokoan. Hogeit bat liburu izanen dira, ez bakarrik Euskal Herriko errorei buruzkoak, baita Galiza edo Kataluniatik ekarriak ere.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

❖ “Tresnen artean alperra eta artoa ereiteko marka dira jendearen atentzioa gehien pizten dutenak. Horrelakoak sekulan ez dute ikusi”

Gure eskualdeko ikastetxeetara joateko 1.600 ikaslek erabiltzen dute autobusa, taxia edo diruz lagundutako autoa. Gehienek, autobusa hartzen dute, ikasketa ertainak egiteko aukeratu duten institutua edo DBHko ikastetxera joateko. Bertze aunitzek, ordea, herrian bertan, beraien auzotik edo baserritik eskolara joateko autoa behar izaten dute. Etxetik eskolara bi kilometrotik goiti baldin badira, gurasoek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izaten dute beraien autoa erabiltzearen. Hortik aparte kasu bereziak daude, etxetik eskolara bide luzea dagoenean (15 km. batzutan) taxi zerbitzua erabiltzen da ikasleak eskolara eramateko.

TESTUA: **AITOR AROZENA**

ARGAZKIAK: **KARMELE TOLOSA**



ESKOLA GARRAIOA: 1.600 ikaslek ibilgailua erabiltzen dute egunero

Tarteka komunikabideen bidez ezagutzen ditugun autobus istripu larriek—azkenekoa Asturiasen gertatutakoa—hotzikarak sortzen dizkigute. Izan ere, egunero eskolako liburu eta tresnak motxila edo bizkar-zakuan sartu eta autobuserako bidea hartzen duen norbait bada hainbat eta hainbat familietan. Ondoko

orrialdeko koadroa egiterakoan, eskualdeko ikastetxeetan derrigorrezko hezikuntza eta ikasketa ertainak egiten dituzten ikasleak kontuan hartu ditugu eta guzira 1.600 inguru dira autobusa, autoa edo taxia egunero erabili behar dutenak. Hauei inguruko herrietako ikastetxetara joaten direnak—Goizueta eta Aranotik Hernani eta Donostialdeko ikastetxetara 20 bat lagun joaten dira egunero, Bortzirietatik Irun edo Hondarribi-

ko institutueta 100 inguru edo Senpere eta Saratik Baiona edo Donibane Lohitzuneko lizeotara—gehitu behar zaizkie. Unibertsidadarako bidea egunero edo astean behin egin behar dutenak ahanzi gabe, noski!

Baserritik herrira eta herritik ikastetxera

Herrietan bizi diren ikasleek ez dute arazo handiegirik izaten, normalean. Beraien ikastetxea herrian badago oinez edo bizikletaz

joateko aukera dute, edo eguraldia arras kaxkarra denean, gurasoen edo bizilagunen autoan joateko modua dute. Ikastetxea herri-
tik kanpo badute, autobusa hartu eta kitto.

Arazo gehiago dute herri-
tik kanpo, auzoren batean edo baserrietan bizi direnak. Errepidea egokia denean eta inguru horretan bizi diren neska-mutikoen kopurua nahiko bada, autobusa ailegatzen da batzuetan. Gehienetan, ordea, guraso-

ak dira –bakarka edo taldeka antolatuta– autoa hartu eta herrira jausten direnak. Kasu hauetan, ikastetxe publikoei dagokienean bederen, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza indibidualizatuak ematen ditie familiei. Laguntza hau jasotzeko ikastetxetik ikaslearen etxeraino bi kilometroko tartea egon behar du guttienez. Hortik aparte, bertze kasu bereziak badaude. Etxetik eskolara bide luzea dagoenean, zenbait kasutan 15 kilometro, taxi zerbitzua erabiltzen da ikasleak eskolara ekartzeko. Honelakoak gehien bat Baztanen ematen dira: Erratzuko zenbait baserri, Orabidea ingurua edo Elizondoko Beartzun eta Iruritako Baigorri auzoak urrun aski gelditzen dira ikastetxe hurbiletik ere.

Txangoak, ikastetxeen arteko tailerrak, kirol ateraldiak...

Auniztan, neska-mutikoen bidaia ez dira ikastetxera ailegatzearekin bukatzen, ordea. Inguruko ikastetxeen arteko harremanak gero eta gehiago lantzen dira eta batetik bertzerara mugitzeko autobusa behar da berriro. Adibidez, asteleherotailerra izaten da Oronozko eskolan eta Arraioz eta Gartzaindik 21 ikasle mugitzen dira. Asteazkenetan Elizonoko eskolan izaten da tailerra eta Baztango ikastetxe

NONDIK NORA MUGITZEN DIRA IKASLEAK?

	LEKARÖZ-ELIZONDO	TOKI-ONA (BERA)	LABIAGA (BERA)	DONEZTEBE	L EITZA L.H.	BAZTAN IKAS. (ELIZONDO)	S.FCO (ELIZONDO)	HERRIAN BERTAN
ALMANDOZ	8	-	-	-	-	-	1	5
AMAIUR	29	-	-	-	-	1	1	12
ANIZ	3	-	-	-	-	2	2	-
ARANO	-	-	-	-	-	-	-	6 (Goizuetara)
ARANTZA	-	24	-	-	-	-	-	24
ARESO	-	-	-	-	15	-	-	3
ARIZKUN	25	-	-	-	-	8	13	11
ARRAIOZ	13	1	-	-	-	-	-	2
AZPIKUETA	9	-	-	-	-	-	-	2
BEINTZA-LABAIEN	4	-	-	21	-	-	-	-
BERA	8	36	10	-	-	-	-	16 ^(b)
BERROETA	2	1	-	-	-	3	6	-
BERTIZARANA	20	1	-	33	-	-	-	-
DONAMARIA	4	-	-	44	-	-	-	-
DONEZTEBE	28	1	-	-	-	-	-	1
ELBETE	5	1	-	-	-	-	1	-
ELGORRIAGA	2	-	-	27	-	-	-	-
ELIZONDO	166	1	-	-	-	1 (Beartzundik)	3 (Beartzundik)	-
ERATSUN	4	-	-	8	-	-	-	-
ERRATZU	25	-	-	-	-	-	3	15
ETXALAR	7	34	1 ^(b)	-	-	-	-	24
EZKURRA	-	-	-	-	10	-	-	-
GAZTELU	-	-	-	10	-	-	-	-
GARTZAIN	8	-	-	-	-	3	6	2
GOIZUETA	-	-	-	-	8	-	-	23
IGANTZI	-	25	-	-	-	-	-	17
IRURITA	49	-	-	-	-	8	14 (10 l.Baigorritik)	-
ITUREN	10	-	-	19	-	-	-	13
LEITZA	-	-	-	-	15	-	-	31
LEKARÖZ	11	-	-	-	-	8	19	-
LESACA	1	82	29 ^(b)	-	-	-	-	18
ÖITZ	2	-	-	12	-	-	-	-
ÖRONÖZ-MUGAIRI	29	1	-	-	-	3	8	4
SALDIAS	3	-	-	19	-	-	-	-
SARA	-	-	-	-	-	-	Orabideatik	25 ^(d)
SENPERE	-	-	-	-	-	-	12	?
SUNBILLA	9	4	-	48	-	-	-	7
URDAZUBI	15	-	-	-	-	-	-	19
URRÖTZ	5	-	-	25	-	-	-	-
ZIGA	11	1	-	-	-	-	-	5
ZUBIETA	1	-	-	10	-	-	-	8 (Iturenara)
ZUGARRAMURDI	6	-	-	-	-	-	-	17
DENERA	522	213	40	276	65^(b)	37	89	285

(1) DBHko garraioa Labiaga ikastolak berak ordaintzen du, Nafarroako Gobernuaren laguntzarik gabe.

(2) Rikardo Baroja eskolako datuak. Jesusen Bihotzan ez dute garraio subentzionaturik erabiltzen eta ikastolako datuak Labiagako zutabean daude

(3) Betelualdeko autobusean joaten direnak sartuak daude Leitzaiko Institutuko kopuru osoan

(4) Eskolako neska-mutikoak. Ikastolan, ama eskola bakarrik dagoenez burusoekin joaten dira haurrak. Ikastetxe pribatuko datuak ez ditugu erdietsi

guzietako 90 ikasle egiten dute joan-etorria autobusean. Amaiurren ortziraletan izaten den tailerrera eta Azpilkueta, Erratzu eta Arizkungo 33 haur joaten dira. Ikastetxeko es-

kurtsioak eta kirol ateraldiak ere hor daude.

Neska-mutikoen ordu eta kilometro aunitz ematen dituz-

te autobusetan, beraz, segurtasun neurriak egoki betetzen dituzten ibilgailuak galdegittea ez da sobera eskatzea. ■

Autobusak bete beharreko baldintzak

Legeak espreski agintzen du ze neurri hartu behar dituzten ikasleek garraioan aritzen diren autobusek. Puntu nagusiak ondoko hauek dira:

Autobusak 10 urte baino guttiago izan behar du edo 10 baino gehiago baditu, haurren garraioan beti enpresa berean erabilia izan behar du. Edozein moduz, autobusek ez dute 18 urtetik goiti izan. Beharrezko paperak (asegurua, zirkulatzeko baimena, ITV...) egunean izan behar ditu, noski.

Autobusek eduki beharreko ezaugarri teknikoak:

- Gidaria eta haurren artean pantaila bat.
- Ateak sistema automatiko baten bidez ireki behar dira eta botoiak ez dira neska-mutikoen eskura egon behar.
- Aitzinean, gidariaren ondoan bertze eserlekurik ez duten autobusek bertzelako babesak behar dute.
- Bistan izan behar du zerbitzuaren bereizgarriak.
- Gelditzen den aldiro bixtu behar dira larrialdietarako argiak.
- Kristalak hausteko sistemaren bat behar du.
- Herrien arteko zerbitzua egiten duen autobusak "takografoa" behar du.
- Zenbait kasutan, bi lagunendako eserleketan hamalau ur-



te baino guttiago duten hiru haur joaten ahal dira elkarrekin.

Bertzelde, eskola garraioa egiten duten autobusetan haurren ardura izanen duen laguntzaile bat joatea komenigarria da, batez ere hiru urteko haurren kasuan, baina lege ez da nahitaezkoa. Gainera, gisa honetako autobusek ezin dute ordu bat baino bide luzeagoak egin. Garraio enpresak bidaia-rien kalteak ordainduko dituen aseguru bat kontratatu behar du.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria: Aitor Arozena. **Pu-**

blizitatea: Kulturkari, S.L. **Erre-**

dakzioa: Aitor Arozena, Asier

Gogortza, Joxemanuel Irigoin.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Ape-

zetxea, Juainas Paul, Bittori Te-

lletxea. **Berriemaileak:** Joseba

Azpiroz, Esteban Arozena, Jua-

na Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi

Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaio-

ne Otxandorena, Alba Fernan-

dez, Lorena Galarregi, Pablo

Mendiburu, Franck Dolosor, Mar-

gari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

xel Gerendiain, Jacqueline, Eli-

xabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

kar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-

rroa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

vier Etxeberria...

Inprimategia: Gertu.

ttipi-ttapa ez du bere gain har-

tzen derrigorrez, aldizkarian adie-

razitako erranen eta iritzien eran-

tzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Be-

ra, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

tan, Urdazubi, Zugarramurdi eta

Sarako udalak, Bortzirietako Eus-

kara Mankomunitatea, Malerre-

kako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-

tea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Eskola garraioa eta segurtasuna

Autobusa zaharra izanda ere errebisioak maiz pasatzea da hoberena



Santiago OTEIZA
Bozanesako gidaria

Haseran ez da erre-
xa izaten neska-
mutil guziak kont-
rolatzea, batez ere

eskolako lehenbiziko egunetan nahastur izaten da, baina gero baretzen dire. Guk ez dugu laguntzailerik izaten eta hemen inguruan ez dut uste inork izaten duenik. Garai batean, duela hoge urte-edo bai, hasi ziren mai-su-maistra batzuk etortzen, bai-na goiz ernatu behar zutela-eta, utzi egin zuten. Orain gu ibiltzen gara oihuka eta zalapartaka, mar-txan gaudelarik eta bi lan batera egin behar izaten ditugu. Noiz-behinka gelditu etapurrustada bat bota behar izaten da. Guraso eta haurrek autobus berriak nahi dituzte, noski, baina ona paratu eta segidoan xehetu egiten dute. Zaharra izanda ere autobusak erre-bisioak maiz pasatzea da hobere-na eta ez nolana ibili. Hiru kont-rol pasatu ditugu berriki, forale-kin eta Trafikoarekin. Jendeak au-tobusari ematen dio kulpaa, baina gidariak izaten ahal du akats bat, edo karretera gaizki egon, lainoa, horma... aunitz gauza. Bertze kon-tu bat jubilazioarena da. Aunitz lekutan adin batera ailegatzean gidaria erretiratu egiten dute, he-men berriz alderantziz, ondar tan-taraino segitu behar duzu. Gazte batek eta zahar batek ez dute erre-flejo berak. Jubilazioak lehenago eman beharko lirake.

Gidariak profesionalak direnez beraien lanbidea ezagutuko dutela uste dut



Haritz ARRIOLA
Sunbilla. Lekaroz UBI

Egia errateko, au-tobusean joatean ez naiz inoiz nere se-gurtasunaz ardu-

ratu eta nik bezala bertze ikasle gehienek berdin pentsatzen du-tela uste dut. Gidariak profesio-nalak izanik, beraien lanbidea on-gi ezagutuko dutelakoan bainago. Bertzalde, erran beharra da-go orain arte autobus zahar bate-an joaten ginela instituturaz, eta duela gutti autobus berri batean joaten hasi garela. Ez dakit Astu-riasko istripu larri eta famatu hor-ren ondorioz izan den edo ez, baina hala ere, harrigarria da az-ken lau urte hauetan erabili du-gu autobus zaharra honela, ba-patean, aldatzea (eta honekin ez dut inolako salaketarik egin nahi). Bukatzeko, autobus zerbitzuari dagokionez, kexa tiki bat ere ba-dut. Nahiz eta niri, zuzenean, ez zait sufritzea tokatu, gidari gutti batzuen konportamendua eta jar-rera txarra dela uste dut. Bada-kit beraieker, bertze edozein per-sonak bezalaxe, haserre egoteko arrazoiak izaten ahal dituztela, baina ez zaizkit normalak irudi-tzen noizbehinka izaten dituzten erreakzioak.


Herri txikietako eskolak mantentzeak arriskuak gutxitzea dakar



Luis LUJANBIO
Goizuetako gurasoa

Garai berriak mo-da berriak eta ongi etorriak onerako badira. Baina kasu

honetan ez zait horrela denik iru-ditzen. Haur kopurua gutxitzen ari dela aitzakitza harturik eta errentagarritasun ekonomioari besterik begiratzen ez diotela kon-tutan edukiaz, nabarmena da Go-bernuaren eskolatzeko plan berrian ikasketak zentralizatzea bultzatu nahi dutela. Zer ondorio dakar horrek? Gure herri txikietako hau-rrak alditik aldira gazteago alde-gin behar dutela herritik beraien derrigorrezko ikasketak egitera. Milaka eta milaka haur garraia-tuak izan behar dute alde batetik bestera eta hori beste arrisku kez-kagarri bat sortzea eta proboka-tzea da. Gobernuak ikasketak zo-nifikatze honek, kilometro pila bat egitea behartzen die egunero gure seme alabei eta kontuan har-tuz hainbat zonaldeetako ezaugar-riak (bide hestuek, mendateak, klima...) eta alditik aldira auto gehiago dabilela gure bideetan, arriskuak areagotu egiten dira eta hori beti kezkarria da guraso-entzat. Egungo joera zerbitzu guz-tiak hiriburu edo zonalde bakoit-zeko herri-buruan zentralizatzea da eta neurri horrek herri txikie-tako hustutzea dakar. Horrega-tik, herri txikietako eskolak man-tenantzeak arriskuak gutxitzea da-kar eta hori da garrantzitsuena.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneretik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

BOTA BERTSOA



Negua

Egoitz ZELAIETA

Neurria: Zazpi puntukoa

*Gaua luzea izaten denez
eguna daukagu motza
jadanik entzun dezakegula
ipar haizearen hotsa
honek dakarren gauza bakarra
da izugarrizko hotza
berokiarekin goza
edo sutondoan poza
ea horrela berotzen dugun
hozturik dagon bihotza
udaberrian haziko baita
maitasunaren larrosa*

*Ezin ahaztu eguberriak
neguan direla gero!
garai honetan bihurtzen gara
denda askoren bezero
beterik zegoen sakela hustuz
erotu al gara edo?
gastatzea da espero
kontzientzi aldetik zero
gertatzen dena gizarte hontan
berekoi garen ezker
pozik nintzake pobreentzat ere
oparirikan balego*

Larrungo Izpiritua sainjatu* edo saindutu egin ote da?

Azken egun hautan, Ipar Euskal Herri osoan, ospatu dituzte parropi berregituratu berriak. Hala nola jakin dugun, Senpere, Azkaine eta Sarako parropiek, orai, parropi bat egin dutela "Larrungo Izpiritu saindua" izenaren pean...

Orain arte, ez ginakien, Eliza Gristinoa "animizta" zela... nahiz bere zeremonietan, halako zer-bait agertzen duen, Jainkoaren semearen gorputza eta odola, ogi pixka baten medioz, iresterazten duelarik... eta hau ez da gaitzezen edo erreprotxu bat, zere bakotxa libro baita nahi duenaren gainean sinestea... Bai, beraz, ez dakigu ongi irakurtu dugun, baina Larrunek dauka Izpiritu Saindu bat...! Behazue ba nun kokatua zen!

Bertzalde, beti uste izan dugu, Larrungo eremuetan sartzen zirela: Azkaine, Sara, Bera eta Urruña.

Larrungo izpiritua (hau ez da saindua) geroztik oraino kondatzen ari da:

"bat, bi, hiru, bainan zer debru! Eskas ditiat Urruña eta Bera...! Eta, Senpere, hor, auzoan, ez duk sekulan neurea izan...! Zer duk komeria hori...!"

Hunen denen errefera: barka neure ausartzia, bainan otoi, utzi, Izpiritu Saindua bere lekuan... Gristinoen sinesmenetan, eta, Larrungo izpiritua, Euskal Herriko arima eta eremuetan! Aintzinetik milesker.

**Sainjatu: aldatu*

**Animizmoa: gauza guziek, izpiritu-arima bat daukatelaren sinesmena.*

AUXTIN ZAMORA (SENPERE)

Orreaga, Nafar elkarteen bilgune

Kaixo lagunok!

Bi urteotan egindako lan aman-komun eta bilera askoren ondoren, Nafarroa osoko elkarte aunitzek zein pertsona partikularrek erabaki dugu publikoki aurkezte gure koordinazio eta elkarla-

guntza proiektua, Nafarroako nortasun ikurrei eta kulturari bultzada sendo bat emateko helburuarekin.

Helburu argi batzuk jarri ditugu azpiegitura xume batez baliatuz, ez baita gure asmoa besteei inoren lana ordezkatzeara. Gure nahia elkarte gehiago biltzea da. Zuen esanetara gaituzue informazio gehiago behar ezker.

Gure aurkezpen publiko ezala hartu behar da MERINDADEEN EGUNAREN ospakizuna, aurten Iruñean egingen dena. Hemen eranstean dizuegu guztion artean egin dugun programa eta zuen presentzia atseginez hartuko genuke: jai herrikoi bat egin nahi dugu eta aldiberean erreibindikatzailea.

Abenduaren 3an elkar ikusiko dugulakoan, agur bero bat.

ORREAGA ELKARTEAREN IZENEAN




**Bidali TTIPI-TTAPA
herritik kanpo
bizi diren
lagun edo
famiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

(+34) 948 631188



ttiipi-ttapa ZOZKETA

Orain TTIPI TXARTELA izateagatik abantaila gehiago izanen dituzu. Erosketa egiterakoan erakutsi TTIPI TXARTELA eta ZOZKETAn parte hartzeko boletoak irabaziko dituzu honako denda eta ostatu hauek guzietan:

DESKONTUAK

AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ. Bertiz

AUTO TALLERRAK

MENDAUR MOTOR .. Doneztebe

SANPI ARAGON ... Doneztebe

PEDRO GARMENDIA .. Elizondo

DATUGELAY Elizondo

SANSINENA Elizondo

LACOSTA Irurita

ZALAIN MOTOR Bera

AUTO-ESKOLAK

SEMPER Bera

ARGAZKI DENDAK

GOIKO Bera

AYLA Bera

MENA Doneztebe/Elizondo

ZALDUA Doneztebe/Elizondo

ARROPA DENDAK

EDURNE Bera

SAIOA Doneztebe

J.J. PIGABEA Doneztebe

TXIRRISTA Doneztebe

KAMAMILA Doneztebe

PIGABEA BOUTIQUE .. Doneztebe

MARELI Elizondo

IPINGI Elizondo

COCOS Elizondo

KATTALINGORRI. ... Elizondo

FANTXIKE Elizondo

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIKUS. Lesaka

ALTZURI Lesaka

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA Doneztebe

BEATRIZ Elizondo

MARIAN Lesaka

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK ... Elizondo

ZELA KIROLAK ... Bera

AGARA KIROLAK ... Bera

M^a LUZ SPORT. ... Bera

LENTZERIAK

M^a CRUZ. Doneztebe

MAITE. Elizondo

DENE Lesaka

LIBURUDENDAK

NAFARPRESS Elizondo

LEGARRA Lesaka

MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK .. Doneztebe

LEIZA Elizondo

OPTIKAK

OSTARGI Bera

PENTSUAK

MENDAUR Doneztebe

ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS Bera

GOÑI Elizondo

NEREA Doneztebe

OSTIZ. Doneztebe

ZURGINAK

ZIMELDI Etxalar

...eta erosketagatik
deskonturik ez, baina
bai boletoak irabaziko:

BERA

AZALEA Loredenda

ZIZKA Ostatua

BIDAXKA Ostatua

PUY Ostatua

ERREKALDE Ostatua

FAIDEL Ostatua

M^a JESUS DIAZ Liburudenda

DIRDIR Oparidenda

IGONE Paperdenda

KALASH Erlojudenda

MARTZUTZAK Arropa eta opariak

NAFARROA Janaridenda

OIHANA Arropadenda

PRIETO Estankoa

RADIO BIDASOA

MIGUEL Jatetxea

DONEZTEBE

LAKANBRA Motoak

ALUSTIZA Lurrindenda

BLAS Liburudenda

KALASH Erlojudenda

ELIZONDO

B. ALMANDOZ Zapataidenda

IZETA Erlojudenda

IZOZTUEN ETXEA

JAVIER Elektragailuak

MARTIN ARRAZTOA Motoak

MERKAOPARI

NATURA ETXEA

RETEGI Gozetegia

SOBRINO iroilegia

LESAKA

LABEKOAK Goxokidenda

OSIÑA Arropadenda

BITTIRIA Harategia

ELENA Arropadenda

ELENA Jostailuak

ETXARTE Erlojudenda

FAGOAGA Harategia

GOIZ ARGI Arropadenda

INAXIO Janaridenda

KOKKILA Ostatua

SASKI BERRI Ostatua

o h a r r a k

- 1 Zozketa eta saria TTIPI TXARTELA dutenentzat da bakarrik
- 2 TTIPI TXARTELA erosiz TTIPI-TTAPA laguntzen duzu (aldizkaria + Telebista)

Eskatu lehenbailehen zure
TTIPI TXARTELA eta aprobetxatu
ematen dituen abantaila guztiak

948 631188



IRITZIA

KOLABORAZIOA

Joseba AZPIROZ Leitzatik

Leitzako zinemari buruz



Etapa berri honetan, Leitzako zinea herriko talde baten ekimenez jarri zen martxan, 1991. urtean.

Ekimen honetara bultzatu zituen arrazoiak, bi izan ziren nagusiki: alde batetik, zinearekiko zuten interesa eta zaletasuna, eta bestetik, garrantzitsuena, interes hau jendearengan sustatzeko asmo eta gogoia.

Asmo hauen arabera denboraldiz denboraldi egiten dira programazioak. Genero guztietako filmak proiektatzen dira jendea erakartzeko titulu ezagunak ekarriaz. Denboraldi bakoitzeko ikusleko kopurua aztertzen badugu, gero eta jende gutxiago heldu dela zinemara ikusten dugu.

Lehenengo bi denboraldietan ikusle kopurua, barenaz beste, 154 eta 97 lagunekoa bazen ere, azkeneko denboraldian 56ra jetsi da. Jaietsiera nabarmena. Gure ustez, ez da arazo bakar baten ondorioa, askorena baizik. Gertatu ohi den bezala, hasieran jendeak gustura hartzen du edozein ekimen berri baina denborarekin, zinea ekintza normala bihurtzen da eta ikusle goaren interesak behera jotzen du. Bestalde, edozein motatako pelikula proiektatzen dela ere, oso jende gaztea da zinera hurbiltzen dena. 15-20 urte bitarteko gazteak dira gehien hurbiltzen direnak. 20-30 urtekoak noizbehinka eta 30-40 urtetakoak berriz, asko dira oraindik sekulan zinema joan ez direnak. Hortik gorakoak, jakina, aurrekoak baino gutxiago hurbiltzen dira. Telebista eta bideoaren

konpetentzia ere hor dago. Gero eta gehiago gustatzen zaigu etxe-zuloan, lasai-lasai telebista aurrean orduak pasatzea.

Bestalde, ikusle kopurua jaitsi ahala, defizita gora doa. Lehenengo urteko defizita 300.000 pezetatako izan zen eta pixkanaka, defizita bikoiztu egin da. Sarrera berriz; gazteei 150 eta helduei 450 pezetak. Ez da gehiegi, ezta?

Hala eta guztiz ere, azaroan denboraldi berriari hasiera eman diogu. Ilusio handiz gainera. Denboraldi honetako apustua umeei eskeinitako

**Lokala egokituz eta
programazioa zainduz,
eutsiko ote diogu
zinemaren asmo honi?**

proiektzioen kalitatea hobetzeak izan behar du. Beraz, programazioaren kalitatea zaindu behar dugu. Egun, igande arratsaldeko proiektzioetarako erabiltzen den makinak ez du behar adinako kalitaterik eskaintzen. Zain ditzagun gazetxoak, beraiek baitira etorkizunean ere zinemari eutsi behar diotenak. Bestalde, gaur egungo instalazioen egoera ere hobetu beharko litzateke. Alde batetik, kamara bakarra izanik, bi edo hiru aldiz moztu behar da pelikula. Besteetik; eserlekuen egoera, kortinak, garbitasuna, argiak... ere moldatu beharko lirateke. Dirudienez udalak badu hauei ekiteko asmorik. Lokala egokituz eta programazioa zainduz, eutsiko ote diogu zinemaren asmo honi? A! boluntario gehiago ez lirateke soberan izanen. Badakizue...beraz, gonbitea egin da....

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



«Konpetizioko aizkora utzi izanen nuen Lehendabiziko Mailara goitu ezean».

Felix ETXEBERRIA
2. mailako aizkora txapelduna
SUNBILLA
Diario de Noticias 98-XI-19

«Erdi Aroko domingotar haiengandik hasi, eta egundainoko euskal

Diario de Noticias, 98ko azaroak 19a

pilotaren historia genealogikoa eginen balitz, jito kastakoak nabarmen gailendu baietz eginen nuke apustu. Oraindik nabari da txapeldunenetik hasi eta afizionatuetan dabiltzan gazteetara iritsi arte».

Patziku PERURENA
Leitzarra
Nafarkaria 98-XI-27

◆ **Dagoeneko egokitu al zara hemengo bizimodura?**

◆ Bai, lehen ere ia urtero etortzen nintzen eta aisa egokitu naiz.

◆ **Zertan nabaritu zenuen aldaketarik haundiena hemen bizitzen jarri zinenean?**

◆ Hemengo giroa eta lasaitasuna dira diferentziarik nabarmenenak.

◆ **Euskararekin behintzat ez duzu inolako arazorik izan, ezta?**

◆ Ez, ez. Los Angelesen ere euskara izan da beti gure etxeko hizkuntza.

◆ **Zergatik erabaki zenuen Goizuetan bizitzea?**

◆ Beti gustatu zait hau. Gainera han jendea presaka bizi da eta hori jasanezina da neretzat.

◆ **Goizuetako Zubi Haundia baino ederragoa al da San Franciscoko Golden Gate?**

◆ Nik Zubi Haundia askoz gehiago estimatzen dut.

◆ **Euskal Herriko kirol edo kultur ekitaldietara joaten al zara?**

◆ Bertso saio batzuk entzun ditut eta gustatzen zait.

◆ **Pilotazalea ere bazara, ezta?**

◆ Bai, egia esan azken hilabete hauetan pilota partidu asko ikusi ditut, batez ere profesionalen artekoak.

◆ **Zein da zure lanbidea?**

◆ Ingelesa erakusten dut Gipuzkoan.

◆ **Ba al duzu Ipar Amerikara itzultzeko asmorik edo gogorik?**

◆ Hurrengo udan joan behar dut, baina hilabete baterako bakarrik. Oraingoz behintzat ez dut hara bizitzera joateko asmorik.

◆ **Ttipi-ttapa irakurtzen al da Los Angeleseko zuen etxean?**

◆ Noiz ailegatu zain egoten da nere familia.

◆ **Bidali orduan agur bat guraso eta anaiei, orri hauen bidez?**

◆ Muxu haundi bana denei eta ikusi arte.



Arantxa LOIARTE
Kaliforniako goizuetarra

ttipi-ttapa telebistaren programazioa

ASTELEHENA, 30

13:00 **Herriz Herri:** Herrietako berrien bilduma herri bakoitzeko berrimailen eskutik.

21:00 **Berriak**

21:30 **Jokoa Solas:** Kirol emaitzak eta berriak.

ASTELEHENA, 7

13:00 **Herriz Herri:** 21:00 **Berriak**
21:30 **Jokoa Solas:** Asteburuko kirol jardueren errepa-soa.

ASTEARTEA, 1

13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Jokoa Solas** (errepika)
21:00 **Berriak**

ASTEARTEA, 8

Ez da programaziorik izanen. Halere, urtebetetzeak, Merkatu Ttikia... ikusgai izanen dira.

ASTEAZKENA, 2

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzean**

ASTEAZKENA, 9

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzean** Kultur eta gizarte gaietako buruzko magazina.

ORTZEGUNA, 3

Ez da programaziorik izanen. Halere, urtebetetzeak, Merkatu Ttikia... ikusgai izanen dira.

ORTZEGUNA, 10

13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Bidegurutzean** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Dokumentala**

ORTZIRALA, 4

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Herriz Herri**

ORTZIRALA, 11

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Herriz Herri** Herrietako berrien bilduma herri bakoitzeko berrimailen eskutik.

Bai Euskarari kanpainak hainbat kultur ekitaldi eramanean ditu herriz herri

XXI. mendeko akordioaren aldeko atxikimenduak biltzen ari dira

TTIPI-TTAPA

Euskararen aldeko kanpaina haundia egi- ten ari da Euskal Herria osoan. Herriz herri, hainbat pertsona, talde eta elkarte lanean ari di- ra herritarrak bilduz XXI. mendeko akor- dioaren inguruan.

Informazioa eman eta atxikimenduak biltzeaz gain, kultur eki- taldiak ere antolatu di- tuzte eta horietako au- nitz gure inguruan gau- zatuko dira.

Baztanen abendu- aren 5etik 13ra ikusgarri aunitz egingen dira. Egia errateko, horietako ba- tzuk aitzinetik presta- tuak ziren, baina guziak kanpainarekin lotuko di- tuzte orain. Larunba- tean, abenduak 5, kar- telak jarriko dituzte Elizondon, trikitilari eta zangopaloe lagundu- ta. Abenduaren 6an Ruper Ordorikak kan- taldia emanen du Erra- tzun, azken diska aur- kezteko. Abenduaren 8an kantariak eta txala- parta ostatzuz ostatu ibi- liko dira. Abenduaren 11n bertso afaria izanen

Euskarazko produktuen katalogoa

Nafarroako Euska- ra Zerbitzuek eus- karazko produk- tuak saltzeko kata- logoa argitaratu du- te. Bertzeak bertze, gure hizkuntzan merkatuan aurkit- zen ahal diren jos- tailu, aldizkari, bi- deo, musika, infor- matika eta eskola materiala ageri di- ra bertan. Bi hel- buru betetzen ditu liburuxka honek: merkatuan dauden euskarazko pro- duktuen berri ema- tea eta euskararen erabilera eskolaz kanpoko ekitaldie- tan (aisialdia, kirola, familia...) he- datzea.



da eta 12an mural bat margotuko da. Honez gain, gazteendako sen- tiberatze saioak antola- tu nahi dituzte, eta egi- nen diren kros eta men- di ibilaldiak ere kan- painarekin lotuko dira.

Bortzirietan ere zenbait ekitaldi prestatu dituz- te. Beran magia-afaria izanen da, Txan Handia magoarekin eta txaran- gak lagundua. Arantzan, Andres Iñigo euskal- tzainaren solasaldia eta

ondotik afaria izanen dute. Igantzin, abendu hasierako jardunaldiak probexu dituzte Bai Euskarari kanpaina ho- nekin lotzeko. Lesakan zenbait ekitaldi burutu ziren duela bi aste.

Bortzirietako Euskara Mankomunidadearen batzarra abenduaren 11n

Ortziral honetan zortzi, abenduaren 11n, arratsaldeko 8eta- tik aitzinera Bortzirie- tako Euskara Manko- munidadearen batza- rra egingen da Berako Herriko Etxeko areto nagusian.

Bilera honetan, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak hamar urteotan ibili- takoaren errepasoa egingen da eta gerora begira ikusten diren zereginak ere aztertuko dira. Euskara Mankomunidadeetik gogorarazi dutenez, batzarra irekia da, be- raz, nahi duen guziak parte hartzen ahal du bertan.

Leitzaldean ere hoge- i lagun lanean ari dira kanpainarendako atxi- kimenduak biltzen eta propaganda banatzen. Egunotan kultur ekital- di asko dutenez, ez du- te besterik prestatu.

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo- garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**



© 948630155
BERA

Xirgil

ileapaindegia

© 948631462 • Altzate I • BERA

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.
© 948630941 • 948631137 • BERA



**kalotxa
zapatadenda**

kanttonberri 6 Bera 948.631516

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6
© 948631403 • BERA

Ortziral eta larunbatean rock kontzertuak izanen dira herrian

Herri Telebistei buruzko solasaldia, bertzalde, gaur Iamotenean

ASIER GOGORTZA

Asteburu honetan ekitaldiz bete-betea ageri da kultur agenda. Oraingoan, batez ere gazte jendea mugituko duen aktibitateak daude aukeran. Hasteko, gaur ortzeguna, abenduak 3, Xabierko Frantzisko eguna izaki igande baten gisakoa den arren, ilunabarrean mahainguru bat egingen da Iamotenean. Zirimolan kultur hamabortzaldiaren barrenean antolatu dute, eta gaia aski interesgarria da, gainera: 'Herri Telebistak'. Aldudeko Elebista, Oarso telebista eta TTPI-TTAPA TELEBISTAKO langileak ariko dira horri buruz solasean. Herritarren partehartzearen gainean mintzatuko dira batez ere.

Mahainguru hori, erran bezala, gaur arratseko 9etan izanen da Gure Txokoan, baina bihar eta etzirako ere bada zer ikusi eta zer aditu. Zirimolan kultur egunekin segituz, bihar ortzirala, hiru kontzertu izanen dira Altxateko ostatuetan. Hasteko, arratseko 9etan *Gestionik* taldeak joko du Bidaxka ostatuan. Ondotik, ikuslegoa estatuz aldatu ezkeren *Zaund* taldea adituzerik izanen du Zizkan. Iparraldeko talde honek



Berako Toki Ona institutukoak Strabourg-en

Toki Ona Institutuak, Europako Parlamentuak antolatu zuen "Euroscola" lehiaketa irabazi zuenez, parte hartu zuen azaroaren 10ean Europako Parlamentuan martxan jarri zituzten ekintzetan. Toki Onako ikasleak izan ziren estatuko parte hartzaile bakarrak eta han Europako bertze herrialdeetako ordezkariekin batera egon ziren. DBHko 4. mailako 60 ikaslek irabazi zuten saria "Giza Eskubideen Deklarazio Unibertetsala: Bizikidetasunerako giroa" lanarekin. Lan hau testu eta ikusentzuteko (bi musika-bideo, taldean egindako irudi eta muntaiarekin) materialekin osatuta zegoen. Joseba Irastorza izan zen taldearen aurkezpena frantsesez egin zuena.

txalaparta modernoak jotzen du, tekno ukituekin eta noiznahi inprobisatuz. Pui ostatuan, azkenik, Akauzazte Azkoitiko taldeak jotzea pentsatua zegoen, baina azken orduko arazoengatik Baionako Katoen taldea ariko da. Gero sorpresa ttiki bat emanen digute herriko bi musikaririk, eta bestari segida emateko Sarako Banbino DJa arduratuko da

musika jartzeaz.

KONTZERTUA LARUNBATEAN

Arestian erran dugu kontzertu ugari egingen dela asteburuan. Izan ere, ortziralekoak aski ez eta larunbatean ere kontzertu indartsua antolatu du Gazte Asanbladak. Aurtengoan doinu metaleroak izanen dira nagusi urteroko kontzertu honetan, Su Ta

Gar, Latzen eta Irungo Lisabo taldeak deitu baituzte jotzeko. Emanaldia Altxateko frontoian izanen da, arratseko 10etan. Sarrera 600 pezeta bertzerik ez da gostako.

Bistan denez, asteburu arront mugitua espero dugu herrian, musika aldetik behinik-behin. Ez da mehatxu bat, baina Bordaxora aldegiten duenak oraingoan ez du barkamenik izanen.

flash

Arbolak kimatzen

ari dira herri guzian. Aurtien Gipuzkoako enpresa batek hartu du lan hori, eta due-la hiru aste hasi zirela. Printzipioz heldu den astean akautuko dute. Bertzalde, Eztegarra Pasealekuan espaloiak moldatzen ari dira eguntan.

Solasaldia

Abenduaren 17an nekazariak hauteskundeak izanen dituzte beren ordezkariak aukeratzeko, eta sindikatuak hasi dira dagoeneko motorrak berotzen. Heldu den astelehenan, hilak 7, UAGNko Roberto Flamariquek nekazal politika eta nekazal hauteskundei buruzko hitzaldia emanen du Kultur Etxean, eguerdiko 12tan.

Bidasoako XII. Bertso-paper Lehiaketa

Gure Txokoak eta Bortzirietako Bertso Eskolak 12. aldiz antolatu dute Bidasoako bertso-paper lehiaketa. Baztan-Bidasoa inguruan bizi direnentzat zabalik egonen da eta lau maila egingen dira (10 urte arte, 11-14, 15-17 eta 18 urtetik goiti). Bertsoak abenduaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira Gure Txokoan.



Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

E E K L E
st tu

Tfnoa: 948630259 - BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

LESAKA

Beti Gazteren Argazki Lehiaketan lanak aurkezteko epea zabalik

Abenduaren 15ean akautuko da Beti Gazte elkarteak, Udalaren eta zenbait erakunde eta komertzioaren laguntzaz, zortzigarren urtez antolatutako argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea.

Beti bezala, nahi duten argazkizale guzkiek parte hartu ahal izanzen dute, gehienez hiru argazki aurkeztuz. Hori bai, argazkiak paperean eginkoak izan beharko dute -ez diapositibak-, txuribeltzean nahiz koloretan eta bakoitza 30x40 zm.ko kartulina batean paratuta. Gainerako baldintzak, joan den urteetan bezalakoak dira. Bidalitzeko modua ere, berdina izanen da (lanen gibelean izenburua eta bertze sobrea izenburua eta egilearen datuak). Arestian aipatutako epean Beti Gazte elkartera bidali beharko dira lanak (*Behoko Plaza, 9; 31700 LESAKA*).

Sariei dagokienez, irabazleak 25.000 pezeta eskuratuko ditu eta bigarrenak 15.000 pezeta. Kirol argazki onena aurkeztzen duenari 20.000 pezetako sari berezia emanen zaio. Erabakia erakusketatik irekitzen den egunean ezagutuko da (abenduaren 27tik urtarrilaren 17ra elkartean).

71azienda aurkeztu ziren feria egunean

El Salvadorren alde milioi terdi pezeta bildu da

AITOR AROZENA

Eguraldi hotza baina eguzkitsua lagun zutela, hirutan hogeita hamaka azienda bildu zituzten plazara Bortzietako Feria Egunean.


Azken urteotako ohi-tura segituz, gehienazaldi kontua zen, berrogeita sei behor eta zaldi. Hauen artean Bordaendarako Fermin Otxotekok eramandakoak irabazi zuen lehen saria, Jose Antonio Anduezak bigarrena eta Agorlekuko Bautista Urrozek hirugarrena.

Hemeretzi behi aurkeztu zituzten eta sari gehienak esku gutti batzutan gelditu ziren. Haragitako behietan, hiru lehendabiziko sariak Berreuko Juan Prietok jaso zituen, horiengatik 70.000 pezeta poltsikoratu.

Holandesetan, hiru sariak Abaskeneko Angel Altzugararentzat izan ziren eta suitza arrazako behietan ere, hiru lehendabiziko sariak Makukobordako Luis Olaetxearentzat izan ziren.

Ahareak ere baziren, sei denetara. Lehendabiziko bi sariak Javier Oiarzabalek eraman zituen eta hirugarrena Gabriel Altzugarak.

Feria egunaren bez-



Azienda ederrak ikusi ziren plazan. Haragitakoan Berreuko Juan Prietok eraman zituen hiru sariak

TTPI-TTAPA TB

perako ajoarriero lehiaketan, azkenik, Periko Maia eta Carlos Urdanpilleta suertatu ziren garraile, bortz bikoteren artean.

EL SALVADORREKIN ELKARTASUNA

Ertamerikarekin orokorrean eta zehazki El Salvadorrekin elkartasuna adieraziz egiten ari diren ekitaldien artean,

herriko dende emanako produktuekin osatutako hamahiru saski zozketatu ziren.

Zenbaki sarituak honako hauexek dira: 14.676, 13.062, 6.223, 7.559, 19.874, 14.232, 10.364, 13.764, 10.292, 3.979, 14.243, 8.531 eta 2.267. Sariak abenduaren 19a baino lehen jaso behar dira Antxordoki dendatik.

flash

Patrizio Goienetxeri omenaldia

larunbat honetan, abenduaren 5ean eginen da azkenean. Arratsaldeko 6,30etan omenaldi ekitaldia izanen da plazan. Arratseko 9etan, berriaz, herri afaria. Apuntatzeko epea ortzegunean akautuko da.

Beñat Atorrasagasti

intsumisoa azaroaren 24an epaitu zuten Iruñean. Epaiaren zain gelditu da orain.

Gimnasia ikastaroa

Helduendako gimnasia ikastaroa hasi da. Astelehen eta ortzegun arratsaldetan ari dira eta izena emateko Antxordoki ahizpen dendara joan behar da.

PNVren bidaia Errioxara

Xabierko Francisco egunerako bidaia antolatu du herriko EAJ-PNVk. Goizean Naxerako katedrala bisitatu eta gero Lapuebla de Labarcako bodega batean bazkalduko dute. Arratsaldean Biasteri (Laguardia) bisitatu-

Fraingo bideak moldatzeko

lanen bigarren fasea Arkaitza eta Altuna y Uria enpresen aldi baterako elkarteak egiten du, ia 67 milioi pezetaren truke.

KATTU

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

© 948627573 • LESAKA

ANA

janaridenda

Bittiria, 41 • © 948637944

LESAKA

BITTIRIA HARATEGIA

© 948 627555

Bittiria, 43 • LESAKA

Lurrindenda

Marian

ondiberr

Estetika

Behoko Plaza 8 © 948637791 • LESAKA

XATURBETXEA

JATETXEA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

Aurtengo uso ehiza ona izan da sareko lekuetan batez ere

Eguraldia hauetarako hobia izan da, tiroz soilik ari diren tokietarako baino

PELLO APEZETXEA

Azkeneko urteetan onena izan da aurtengo ehiza denboraldia, bai sareetanaritu diren usazaleentzat, bai eskope-ta zaleentzat. Izan ere, 175 dozena eta bortz uso eskuratu dituzte sareetan, eta 40-50 uso etxeratu ditu herriko hainbat ehizturik. Haizego guti eta euri franko izan duen udazken hau ez da txarra izan Etxalarko usategietarako. Sarezko bertze usategietan ere ehiza ongi joan zaienez geroz, usoa saltzea zailago suertatu da zenbait eguez.

Larraburuko mus eta partxis txapelketak laugarren astean

Zazpigarren urtez musekoa, eta seigarren urtez patxisekoa, Larraburua elkarteak presatzen dituen neguko



Sagardoa egiten aritu dira Artxentxea eta Beolaldean

Lehen arruntak ziren zeregin franko bitxi bihurtu zaizkigu, uzten joan direlako. Sagardo egitearena bezala. Orain kontatzeko berria dugu, Artxentxean eta Beolaldean sagardoa egiten aritu direla.

Argazkia: Pello

txapelketak aintzineratzen doaz. Hiru saio jokatu dira, eta abenduko igandeen jakinaraziko dituzte irabazleen izenak.

Tartean, galdu edo irabazi, ordu batzuk dis-traituta pasatu izanen dituzte denek.

Presoen aldeko ibilaldiak akabita polita izan zuen

Bigarren egunean, igandean, Arantzatik Etxalarrera etorri zen jende taldea, lau orduko bidea egin eta. Egu-raldi hotza baina gar-

bia, egun egokia izan zuten oinezkoek. Lagun arteko bazkaria gelditu zirenek eskola zaharreko tokia erabat bete zuten, eta bazkaria eta bazkalondo goxoa gozatu zuten, Orioko txiste kontalariekin.

flash

Elkarteen eguna

ospatuko du Larraburua Elkarteak, Xabierko Frantzisko Egunean. Ohitura duen bezala, bazkal-tzeko bilduko ditu elkartekideak, eta omenaldia eskeiniko die aurtur lauetan hoge-i urte bete dituztenei.

Azienda hilak botatzeko zulo berria

Hondarreko urteetan erabilitakoa bete omen dela eta, zulo berria egitea erabaki du Udalak, lehen-goaren ondoan.

2.300 arbola salduko ditu

subasta bidez, Udalak: mila haritz amerikar eta mila eta hirureun insignis pinu, mila eta ehun metro kubiko zur, denetara. Hasierako prezioa, ia zapi milioi eta erdikoa da.

Asistente soziala

Gizarte langileak, astelehenero 12etatik aitzinera hartuko du jendea Etxalarren.

Ruth
Ileapaindegia mistoa
Tel.: 948 635207
Iñarra, 5 • ETXALAR

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentzurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
948635290 **ETXALAR**

Mamel Zamorano
Bernizadurak
Pintura
orohar
Bittiria, 37 • LESAKA • 989 042 671

HARITZPE
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK
Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortzirak enkarguz.

LECARA
Legarra, 9 • 948 637 030 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak
espiralean ere
egiten dira

KOXKILA OSTATUA
Zarandia, 4 - LESAKA

IGANTZI

Ablitas herriko haurrekin jarri dira harremanetan herriko ikasleak

Heldu den asteartea bitartean Kultur Egunez gozatzeko aukera izanen dugu

OSKAR TXOPERENA

Igantziako Eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleek, Arantzako 5. eta 6. mailakoekin batera, Ablitaseko ikasleekin hasi dituzte harremanak. Tuteratik hagitz hurbil dagoen herria da Ablitas, Nafarroako Erriberan, ia ia Zaragoza herrialdea ukituz. Hasi berria duten elkarlan honetan, gutunezko harremanak dauzkate momentuan, eta eskolatik erran zaigunez, bi helburu dauzkate: Hizkuntzak lantzea –Ablitasekoek euskara eta Igantziarrek gaztelania– eta bidenabar herrien ezaugarriak trukatzeko. Bidalitzen dituzten eskutitzetan bi hizkuntzak erabiltzen dituzte, gaztelania eta euskara, eta abudo hasiko dira herrien argazki, mapa eta horrelako gauzak bidal-



Presoen aldeko martxari harrera polita

Bortzirietako Herri Ekimenak presoen eskubideen alde antolatutako martxak harrera polita izan zuen Igantzin, bertan egin den lehendabiziko manifestazioa dela kontutan hartuz, batez ere. Udalbatzaren zenbait kidek ere hartu zuen parte harreran, eta ondotik, Biltoki Elkarte Juntak antolatutako bazkarian elkartu ziren herritar eta kanpotik etorritakoak.

tzen, lehen aipatutako helburuak betetzeko. Oraindik gauzatzeko baldin badago ere, hiru eguneko egonaldiak ere

antolatu nahi dira heldu den urterako, martxoan igantziarrek harat joateko eta ekainean eurak honat etortzeko.

Euskarazko errotulazioak

Herriko Etxean egin dako azkeneko bilkuran, bertze zenbait gau-

zen artean, auzoetako etxeen izenak eta bertze zenbait ezaugarri izanen dituzten panelak paratzeko erabakia hartu zuen Udalbatzak. Proiektuak 500.000 pezetako aurrekontua du eta paratu beharreko zazpi panelak horrela banatuko dira: Irisarri auzoan (2), Frain auzoan (2), Piedade Gaina auzoan (2) eta, azkenik, Unanu auzoan 1.

Doneztebeko Abesbatzaren emanaldia gibelatu da

Egunotan ospatzen ari diren Kultur Egunezko egitarauak aldaketa bat izanen du guttienez. Larunbatean etortzeko zen Doneztebeko Abesbatza, zenbait arazo direla eta, ez dugu hemen izanen, eta bere emanaldia urtarri-larako uztea erabaki da.



Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziako Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 • © 948637264

Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIKUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Pizina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak



Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)

Tel. 948. 63 10 03
Mug.: 929 01 59 23





ARANTZA



Hotza kentzeko ederki etorri zen herrian barna egindako kalejira

Presoen aldeko mendi martxak lagun parrasta bildu zituen

Larunbateko ibilaldia Arantzan akautu eta igandekoa hemendik abiatu zen

ELIXABET ETA GARBIÑE

Azaroaren 21 eta 22ko aste hondarrean, Bortzirietako presoen aldeko ekimenak mendi ibilaldia egin zuen.

Larunbat goizean hasi zen mendi martxa arratsaldeko bortzak aldera ailegatu zen Arantzara. Lehenbiziko, herrian barna kalejira zaratatsua egin zen eta hotza ken-

tzeko ederki etorri zen. Herriko Etxeak prestatu zuen kafe beroa. 7,30etan bertsolariak aditzeko aukera izan zen. Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien



Herriko kirolariak Nafarroako Jolas Kiroletan

Herriko kirolariak parte hartzen ari dira aurtengo Nafarroako Jolas Kiroletan. Argazkian herriko arpanlariak ageri dira lanean, Pantaleonen laguntzarekin epailearen begiradapean.

Oihanberritze lanak

Nafarroako Gobernuak hurrengo bi urteetan gehienez 50,8 milioi pezeta gastatuko ditu herrian oihanbe-

rritze lanetan. Bertzalde, Unanua mendian landareak sartu nahi direla eta Herriko Etxeak bando bat ateri du, nahi duenak lan horretan parte hartzeko erranez.

bertsoen oihartzunean, preso izandako Tomas Karreraren solasaldiaz gozatzeko parada izan genuen. Kalejira eta afaria egin ziren ondotik eta berriz ere bertsolariak eta Tomas Karrera aritu ziren.

Igorren kantaldia eta

Berako Borrokan talde gaztearen kontzertuarekin akautu zen eguna, mendizaleek bihar-monean berriz mendirako martxa hartu behar baitzuten. Termometroa zero azpitik egon arren, jendeak hagitz giro beroa harrautu zuen.



MARTIKO

Gure baserrietako produktuak

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA



© 948631076 • BERA

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



Urtebeteko konexioa gehi
posta elektronikoko helbidea:

10.000 Pta. + BEZ

KONEKTATU internetera

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobea duzu. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptan. Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

☎ (+34) 948 631188

Udal zerga eta tasei buruzko ordenantzak onartu ditu Herriko Etxeak

Bertzeak bertze, uraren prezioa edo igerilekua eta pilotalekuaren erabilera zehaztu dira

JAIONE ETA ALBA

Datorren urteko udal zerga eta tasei buruzko ordenantza onartu berri da. 199an sunbildarrek zerbitzu ezberdinengatik ordaindu beharko dituzten prezioak zehaztu dira.

Urarengatik ordaindu beharreko prezioa aldatzen da, etxerako edo bertze zerbaiterako erabili behar bada. Etxerako bada, 10 m³ arte (10.000 litro) 350 pezeta ordaindu behar dira. 10 eta 50 metro bitartean, metroko 25 pta. 50 eta 110 metro bitartean metroko 40 pta eta 110 metrotik goiti, bakoitzeko 45 pta ordaindu beharko dira. Ura etxerako ez denean, zerbait gehiago ordaindu beharko da. 10 metro edo guttiago 500 peze-ta; 10 eta 110 metro artean, 45 pta metroko eta



Zerbitzu ezberdinengatik ordaindu beharrekoa zehaztu da udal ordenantza hauetan

hortik aitzinera metroko 55 pezetza.

Uraren prezioarekin batera, pilotalekuaren erabilera, datorren urterako igerilekuaren prezioak edo Herriko Etxean egin beharreko paper, fotokopia edo konpultsengatik or-

daindu beharrekoa zehaztu da.

Igerilekuan, denboraldi guzirako txartela 4.500 pta ordaindu beharko dute helduek: 2.500 pta 12 eta 18 urte artekoek eta 1.500 pta 6 eta 12 urte artekoek. Pilotalekua, argirik ga-

be orduko 1.000 pta eta 1.500 argiarekin.

Olentzeroko entsaioak larunbatean hasiko dira

Antzakaitz kultur taldeak bilera egin ondoren, abenduaren 5ean,

eguerdiko 12etan herriko pilotalekuan olentzeroa prestatzeko egingen den entsaioa joateko deialdia zabaldu du.

Urtero bezala, trikitixa, akordeoia eta haurren kantaz alaituko da herria Olentzero egunean. Aurtengo ibilbidea pixko bat aldatuko omen da, errepide nagusira haurrekin ateratzeko duen arriskuagatik. Olentzero egunean biltzen den diruarekin, urtero bezala, Errege Kabalgata eta bertze hainbat ekitaldi antolatuko dira.

HBren bilera

Joan den ortziralean, azaroaren 27an, Herri Batasuna talde politikoaren bilera burutu zen Herriko Etxean. Bilera horretan Herri Batasunaren egoera gaurko egunean aztertu zuten.



ZALAIN
JATE TXEFA
EGUNEKO PUNTUA ETXERAKO

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Elizatz
ERLOJUTEGI
BITXITEGIA

Nafarrentzat prezio bereziak

Landetxe Enparantza ☎ 943.492698 **OIARTZUN**

BEINTZAKO OSTATUA



☎ 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

MENGHINI AKORDEOIAK

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

Deskontuak akordeoiak erosterekoan

DOMINENEA Etxea
San Andres Karrika, 40
NARBARTE
☎ 943 - 61 50 55

DONEZTEBE

Arkupeak elkartearen urte akabilako besta abenduaren 18an ospatuko da

Malerrekako jubilatuek berriz, Santa Luzia Egunean izanen dute beraien besta

PATXI IRIARTE

Joan den urtean Belateko tunelak bisitatzen ibili ondotik, Elizondon meza aditu eta Donezteben bazkaldu zuten Arkupeak elkarteak jubilatuek. Aurten, ordea, Donezteben egiten dute oso-osorik erretiratuek urte akabilako besta, abenduaren 18an, hain xuxen.

Ekitaldiak goizeko 11,30etan, San Pedro elizan hildako bazkideen omenez egiten den mezarekin hasiko dira. Txomin Garmendia bertsolaria ere mezan egonen da. Leku berean, urteari errepasoa egiten zaio eta datorren urterako elkarteak dituen asmoen berri emanen da. Nafarroako Gobernuak eta udaleko agintariek hartuko dute hitza gero, bertaratuak agurtzeko. Bazkaria Bordatxon izanen da, Argedasko Moderno jatetxearen eskutik. Menuan sarrerakoak, arrain zopa, legatza, txanpaina eta gainerako guztiak sartuko dira. Bazkalondoa



Pailazoak Bordatxon abenduaren 12an

Larunbatean zortzi, abenduaren 12an, arratsaldeko 5,30etatik aitzinera Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emankizuna ikusteko aukera izanen da Bordatxo dantzalekuan. Ekitaldia Doneztebeko Udalak antolatu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamenduaren laguntzarekin. Hiru pailazoak amona Josefinaren baserrira joanen dira eta Melontzio Makalontzio maltzurari aurre egin beharko diote.

alaitzeko dantzaldia izanen da arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara eta autobusak arratseko 8etan abiatuko dira bueltan. Egun osoko prezioa –zozketarako zenbakia barne– 3.000 pezetakoa da. Autobusen ordutegiak izena ematerakoan jakinaraziko dira. **Herriko jubilatuen**

besta Santa Luzia egunean

Eskualdeko Arkupeak elkarteak abenduaren 18a aukeratu badi, herrikoen eta Malerrekako besta abenduaren 13an, Santa Luzia egunean ospatuko da. Egitaraua ximplea bezain erakargarria izanen da. 1,30etan baz-

karia Jubilatuen Etxean, arrain zopa, legatza eta solomilloarekin. Arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara musika izanen dute. Prezioa 3.000 pezetakoa da eta bazkideek bakarrik izanen dute joateko aukera. Izena lehenbailehen eman behar da.

Erbi eta untxeak

ehizatze debekua

Doneztebeko Bear Zana elkarteak ehizatze ezin izanen dute unte edo erbirik ehizatu aurtengo denboraldian, horretarako debekua ezarri baita. Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Zerbitzuaren neurketen arabera, honelako animala gutti dabil gure mendietan eta horregatik debekatu da ehizia. Urte baterako bakarrik izatea eta datorren urtean hainbat unte eta erbi ikustea espero dugu.

Argi berriak zenbait karriketan

Doneztebe hankaz goiti dagoela ez da dagoeneko berria. Une honetan, eliza inguruan eta Parrokia karrikan ari dira lanean. Orain, zenbait karriketan paratu dituzten argi-farolak dira berri. Argi horixta goxo-goxoa ematen dute eta jendeak gogoko du. Baina San Pedro elizaren aitzinaldeko argia ez dago hain ongi, kanpandorrearen erdia bertzerik ez baitu argitzen.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

LENTZERIA

Ibortza Martzaria
Horrekin ordea
0-14 urte
Parroquia 11 - Donostia
948637404

tüpi-ttapa
internet

Internet:
<http://www.jalgi.com/topagunea/tüpi-ttapa>

E-mail:
tüpi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Kultur Egunak asteburu honetan burutuko dira

Ibintza Kultur taldeak antolatuta hainbat ekitaldi izanen dira

IBAN ISASI

Ibintza Kultur taldeak urtero garai honetan Kultur Egunak antolatzen ditu, San Francisco besta egunaren inguruan. Aurtengoan abenduaren 4an eta 5ean, ortzirala eta larunbatean.

Ortziralean, arratsaldeko 7etan, kalejira herriko trikitilariekin. 8etan solasaldia: "Egin, egingo dugu". Ondotik artopil jatea eta 10,30etan zine emanaldia: "40 ordu" Leitza egindako filma aurkeztuko dute bere egileek.

Larunbatean, goizeko 10,30etan hasi eta eguerdira arte haur joquak. Arratsaldeko 5etan zinea: "Batman 1". Ondotik berendua eta arratsaldeko 7,30etan solasaldia: "Mundua emakumeek mugitzen dute", Mugarik Gabe taldearen laguntzaz. 9,30etan afaria Herriko Ostatuan. Ondotik dantzaldia Leaitz trikitixa taldearekin.

Bi erakusketa zabalik egonen direla abenduaren 3tik 5era Herriko Etxeko ganbaran, 12eta-



"40 ordu" filmearen egileek aurkeztuko dute beraien lana

Argazkia: Joseba

tik 2etara eta arratsaldeko 5etatik 7etara. Batek "Mundua emakumeek mugitzen dute" izenburua darama eta bertzean, Jagoba Manteola argazkilariaren lana erakutsiko dira.

Ertamerikara dirulaguntza

Medicus Mundi erakundeak 100.000 pezetako dirulaguntza eman dio Udalak, Mitch hurakanak kaltetutakoak laguntzeko. Bertzal-

de, DYAk janaria bildu zuen Herriko Etxeko arketan azaroaren 18an.

Moldatze lanak

Itturnako erreka garbitzen eta egoki jartzen ari da Erlaitz eraikuntza enpresak. Lan honetarako 9 milioi terdi pezetako aurrekontua du eta %70 Nafarroako Gobernuak Herriko Departamenduak ordainduko du. Aurtiz eta Lasaga auzoen arteko bidean dagoen Argisu-

rrako zubia inauterietarako prest izanen da. Lan honen aurrekontua 8.764.000 pezetakoa da eta erdia Vianako Printzea erakundeak ordainduko du.

Elizako erlojua konpondu dute

Elizako erlojua konpondu eta makineria berria jarri diote. Aurrekontua 350.000 pezeta ingurukoa izan da eta dagoeneko martxan dago.

Portonaria

«Espero nituen argazkiak ez ateratzea da penagarriena»

Azaroaren 22an burutu zen Hondarribian Iruñeko Hiria izena zeraman urazpiko argazki lehiaketa. Aurtengoan hirugarren urtea betetzen zuen eta iaz txapeldun suertatutako Patxi Iriarte doneztebarrera ere han izan zen. Aurtun, ordea, seigarren postua bertzerik ez zuen erdietsi. «Zenbait arazo izan nituen argia eta flasharekin, uste baino puskeaz argiago atera ziren argazkiak. Hori da penagarriena, zuk argazkiaren ideia bat egin eta gero horiez ateratzea. Txapeldun izateak ez du horrenbertze inporta» dio Iriartek. Eguraldiak ere ez zuen batere lagundu argazkiak egiterakoan. «Ur azpian itsasoa indartsu zebilen eta harrietara lotzen ez bazinen iraulka alde batetik bertzeratzen ziren. Olagarroak ere harriei estutu-estu hartuak ikusi nituen». Momentuz, inguru honetan bera da kirol honetan diharduen bakarra baina jendea pixkan-pixkan animatuko dela uste du Patxi Iriartek. «Itxuraz zaila ematen du baina arras errexa da, ez du batere konplikaziorik. Gainera, ederra da urazpian duguna ere eza gutzea».



Patxi IRIARTE



Prezioak

Helduak.....	400 pta
Jubilatuak.....	200 pta
Haurrak.....	200 pta
>15 lagunekoko taldeak	200 pta

Neguko ordutegia

Asteartetik ortziraleragoteko 11tatik 1a arte

Larunbat-igande eta jai egunetan goizeko 11tatik 2ak arte

Arratsaldez zita eskatu behar da

Astelehenetan itxita

Zubietako Udala



ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

☎ 948 450 491

MALERREKA-BERTIZARANA

8.500 kilo janari bildu ditu Ertamerikaren aldeko DYaren kanpainak

Ertamerikan Mitch hurakanak sortutako kalteak nolabait arintzeko Doneztebeko DYAk antolatutako elkartasun kanpaina arrakastatsua suertatu da. Eskualdeko herri ezberdinetan 8.500 kilo janari bildu dituzte eta arroza, lenteja eta bertze hainbat jakiz betetako bi kamioi joanen dira Ertamerika aldera. Bertzalde, eskatzen ez bazen ere, jendeak arropak eta zapatak ere eman ditu.

Lesakan egindako jaialdi eta zozketen bidez, bertzalde, 1'5 milioi pezeta lortu dira.

Durangoko Diska eta Liburu Azokara ateraldia

Urtero bezala, abenduaren 8an Durangon eginen den Diska eta Liburu Feriara joateko autobusa antolatu du Ezpelura Emakume Elkartek, Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntzaz. Azoka famatua ikusteaz gain, Arbaso elkartean zabalik dagoen artisau erakusketa bisitatzeko ere probetxatuko dute bidaia.

Autobusa goizeko 9etan abiatuko da Doneztebeko geltokitik eta antolatzaileek garbi utzi nahi izan dute edonor joaten ahal dela, gizaseme nahiz emakume, zahar edo gazte. Horretarako lehenbait lehen izena eman beharko da Malerreka Mankomunitatean (948 451746 telefonoan, Begoña).

Zenbait herrietako edateko ura tratatuko duen estazioa eginen da Narbarten

TTIPI-TTAPA

Oieregi, Oronoz, Narbarte eta Legasa herrietako edateko ura tratatuko duen estazioaren

proiektua egiteko lehiaketa deialdia zabaldu du Narbarte kontzejuak. Proiektuaz gain, estazioa egin eta hiru hilabetez egoki funtzionatu eta bere be-

tebeharra egoki betetzen duela aztertu beharko du lana hartzen duenak. Hasierako aurrekontua 38 milioi pezetakoa da (BEZ barne) eta proposamenak abenduaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira Narbarte kontzejuan.

GOIZUETA

Xalto Sariaren bosgarren finala abenduaren 11n

Afarirako txartelak Urrutinean daude salgai 1.500 pezetaren truke

ESTEBAN AROZENA

Nafarroa eta Iparral-eko bertsolari gazteen txapelketatzat jo daitekeen Xalto Sariaren bosgarren aldiko finala hurrengo ostiralean, abenduaren 11n, ospatuko da.

Nafarroako Bertsozaleen Elkartek eta Goizuetako udalak iazko formula erabiliko dute lehiaketa honen antolakuntzan. Hau da, Umore Onan kantatuko dute bertsolariek gaueko 9,30etan hasiko den afari herrikoiaren ondoren. Otordua eta saioaren truke 1.500 pezeta ordaindu beharko dute elkartera hurbiltzen diren bertsozaleek. Txartelak Urrutinea tabernan egonen dira sal-

gai abenduaren 9a arte.

Hiru begirale Goizueta eta Aranoko haurrentzat

Goizueta eta Aranoko Udalen Euskara Zerbitzuaren antolakuntzapean Eguberrietako oporretan burutuko diren haur aisialdirako hiru begirale behar omen dira. Bi astetan banatutako hemezortzi orduko programazioa aurkeztuko da eskaera egiterakoan eta abenduaren 10ean bukatzen da horretarako epea. Azpimarragarria da aurtan ez dela taldekako programaziorik onartuko, hau da, pertsona bakoitzak berea eraman beharko du Herriko Etxera.



Urrezko Eztaiak

Justo Lujanbio eta Jesusa Ansa senar-emazteak bete berriak dituzte 50 urte elkarrekin 1948ko azaroaren 6an ezkondu baitziren. Argazkiko koadrila eder hau bildu zen ospakizunean, hamar seme-alaba, beste hainbeste suherrain eta hoge bi biloba.



Umore Ona elkartearen urteko festa

Azaroaren 14an ospatu zen Umore Ona elkartearen atal ezberdinen urteroko festa. Argazkian, nesken dantza taldea ageri da, emanaldiaren atsedenean.



ARESO

Eguberrietan haurren begiraleak nahi dira

18 orduko programa aurkeztu behar dute

JUANA M^a SAIZAR

Eguberrietako oporretarako begiraleak behar dira umeen aisialdia antolatzeko. 18 orduko programa aurkeztu behar da. Proposamenak abenduaren 10a baino lehen aurkeztu be-

har dira Euskara Zerbitzuan.

Marques de Areso

Olaberriko Bodegas Elosegik Aresoko Udalarai baimena eskatu dio alkohola duen edariei—garagadoa izan ezik—Marques de Areso

jatorri izendapena emateko.

Pistak

Txillene-ko Bordako pistaren obrak egiteko ardura Pagozelai eraikuntza enpresari eman dio

Udalak.

Oihan ateratzea

Muñoaundi inguruan

1.245 izei gorri aterako dira. Bere hasierako balorea 3.817.000 pezetakoa da.



Haurren bidaia

Iaz Gipuzkoa aldera joan ziren eskurtsioan umeak eta aurtan Pitillas eta Olitera joango dira.

Datorren urteko zergak, tasak eta prezioak onartu ditu Udalak

Osasun Zentroan hitzordua emateko sistema aldatu da

JOSEBA AZPIROZ

Udalak azaroaren 18an egindako batzarrean, 1999. urtean ezarri behar diren zergak, tasak eta prezio publikoak onartu zituen. Honako hauek ez dute igoerarik izanen: Lizentzi fiskalak; erakuntza, instalazio eta obren gaineko zergak; "plusvalia" delakoak, ziurtagiri eta fotokopiak; udalaren kirol instalazioen erabilpenarenak-pilotalekua eta igerrilekua; ur-sarera loturak egiteko tasak eta badoak. Kontribuzioak I.P.C. delakoaren igoera izanen du; etxeko hondakinak biltzeagatik 1.815 pzta. ordaindu beharko dira eta lan-tegietakoak biltzeagatik berriz, 3.120 pzta-hiru hilabetetik-. Uraren prezioa eta merkaturako postuak jartzeagatik kobratzen den tasa, IPC delakoaren ariora igoko dira. Taberna-riek espaloietara ateratzen duten mahai bakoitzeko 3.000 pzta. ordaindu beharko dute. Haurtzaindegiko zerbi-



'Zili' istripuan hila

Azaroaren 22an, Iñaki Salbarredi 'Zili', auto istripu baten ondorioz hil zen eta Periko Razkin larriki zauritu zen. Kotxean zihoazten beste bi lagun onik atera ziren. Lauak Berriozartik heldu ziren, Aurrerak Huarteren aurka jokatu zuen partidua ikustetik. Aurrera futbol taldearen diruzaina izateaz gain, sortzailetako bat ere bazen Zili eta elkarteko lehendakaria ere izana zen. "Zili"ren heriotzak atsekabe handia sortu zuen herrian. Gertakizun honen inguruan aipatu behar, Leitzako Osasun Etxeko langileak publikoki eskerrak eman nahi dizkiela «istripuan jator, zintzo eta izenik eman gabe erreskate lanetan lagundu zuten herriko gazteei».

tzuairengatik, ume bakoitzeko 8.000 pezeta

hileko kobratuko da. Azkenik, aziendak he-

Leitzeko Osasun Zentroan hitzordua emateko sistema aldatu da

Informatika programa berri bat dela eta, Leitzeko Osasun Zentroak hitzordua (zita) emateko sistema aldatu egin du, jendeak jasotzen duen atentzioaren kalitatea hobetzeko asmoarekin. Honela, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan, sendagilea, pediatra edo erizainaren laguntza jasotzeko telefono honetara deitu beharko da: 948510800, goizeko 8etatik 10ak arte edo beste momentu batean, zita beste egun baterako nahi bada.

rrilurretan bazkatzeagatik (ur-belarrak), prezio hauek ordaindu beharko dira: ardi eta ahuntz bakoitzeko, 145 pzta. eta behor eta behi bakoitzeko, 1.374 pzta.

EHNEren bilera

Abenduaren 11n, ilunabarreko 9etan izanen da Udaletxean.

flash

❖ Droga menpekotasuna eta prebentzioa

Abenduaren 18an, ostirala, arratsaldeko 8etan, Aurreran, drogomenpekotasunaren prebentzioaren zenbait esperientzi kontatuko dizkigute Txus Congil, Josune Zabala eta Eneka, Hernani, Irurtzun eta Altsasuko drogomenpekotasunaren prebentziarako teknikariek.

❖ Eginen proiektu berriak 5 milioi bildu ditu

Egin egunkaria eta irratia itxi zituztenean, proiektu berri baten beharra sortu zen Euskal Herri osoan. Egingo Dugu kanpainaren bitartez 1.000 milioi pezeta biltzea da apustua. Oihartzun polita izan du kanpainak herrian, aurrikusitakoa baino gehiago bildu baita: bost milioi. Eskerrik asko denei, Egin-zaleen partetik.

❖ Notarioa abenduaren 11n

Abenduan, notarioa 2. ostiralean etorriko da, 1.aren ordez. Beraz, abenduaren 11n, goizeko 10etan etorriko da.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BAZTAN

Oronozko eskola publikoa abendu hasieran zabalduko da

43 milioi pezeta gusta da eta Hezkuntza Departamenduak ordaindu du

TTIPI-TTAPA

Oronozko eskola publiko berria egiteko lanak laster akituko dira eta eguna oraindik finkatu gabe badago ere, abenduaren hasieran zabalduko da ofizialki. Egun horretan, bizilagun guzietatik zabaldutako besta egingen da. Halere, dagoeneko eskola bisitatzeko aukera bada.

Mariezkurrena erai-kuntza enpresak egin duen lan honetan 43 milioi pezeta gastatu dira. Guztia Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamenduak ordaindu du. Balleko Udalak, berriaz, lora-tegiak apaindu eta kanpoaldeko ormigoiztatze lanak ordaindu ditu, 4 milioi pezeta inguru.

Heldu den urte hasieratik Haur eta Lehen Hezkuntzako 30 haurrei



Eskolako gimnasioa herritar guzietatik erabili ahal izanen dute, klase orduetatik kanpo

Diario de Navarra

emanen die zerbitzua eskola honek. Baina eskola ez da neska-mutikoek bakarrik erabiliko duten eraikuntza. Izan ere, gimnasio ederra egin baitute eta eskola orduz kanpora, edozein herritarrek izanen du bertan aritzeko aukera.

Florentino Goñi alkateak dioenez, «proiektua ikusi zenean, gimnasioaren beharra somatu genuen, herrian hainbat talde ari baitira gimnasia egiten». Hiru ikasgela, arkupea, komunak eta bulegoa ere baditu Oronozko eskolak.

Oronoztarren bertze kezka pilotalekua moldatzea da. Badirudi Balleko Etxea, lanaren zati bat ordaintzeko prest dagoela baina, alkateak dioenez «Nafarroako Gobernuaren borondatea ere ezagutu behar dugu».

flash

Oihan ateratzea Anzabalen

Anzabal inguruko herri lurretan oihan enkanterako deia egin du Balleko Udalak. 3.644 insignis pinu eta lawson zipres aterako dira, 15.604.400 pezetan baloratuak eta 2.585 metro kubiko zur eta 118 metro kubiko egur emanen dutenak. Proposamenak abenduaren 15eko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Hirurteko Plana

Hirurteko Planaren barrenean sartu dira ur depositoa eta urhartze eta eramateko hodiak egiteko lanak. Lanaren aurrekontua 14,33 milioi pezetakoa da eta horietatik 11,11 milioi Nafarroako Gobernuak ordainduko du. Arizkongo Bozate auzoan bertze depotsito bat egingen da. Aurrekontua 11,74 milioiokoa da (9,11 milioioko dirulaguntza Iruñetik).

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO


BAZTAN OPTIKA
ORDUTEGI BERRIA:
Egunero

goizeko 9,30etatik 1,30etara eta
arratsaldetan, 4,45etatik 7,45etara

Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

MENDI
OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO


ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



Berroeta eta Anizko elizak berritu dituzte herritarren laguntzari esker

1795. urtean barrenetik erre zituen Frantziako Armadak

RAMON APEZETXEA

Berroeta eta Anizko herriek berritu dituzte beren elizak. Ondoko argazkietan ageri denez, ez dira murrizt gelditu beren lanetan.

Bi eliza hauek erre-ak izan ziren barrendik, 1795. urtean, frantsesen armadak su emanda. Ondoren eginak dira bai aldareak, bai barrengo gainerako berritzeak.

Teilatuak konpondu; inguruak apaindu; gorapeak berritu; margotu; aldareak zaharberritu, lehengo pinturak agertuz; berogailua edo kalefakzioa eta argitasuna ere berria eta beste hainbeste lan egin dituzte. Diru aunitz gastatu da, baina lana ona egin ondotik gauzak ongi gelditzen direnean, denak kontent. Ondokoek ere eskertuko dute.

Beti bezala jendeak eman du bere laguntza berexia. Denbora guzietan eta gaur ere bai, herriaren laguntzari esker posible izandu dira horrelako lanak egitea.

Herrietan egiten diren gauza aunitz, jende-ari esker egiten dira, nahiz eta ttikiak izan herri hauek, eta nahiz Nafarroako Gobernu-
nahiz Udalak agertu egi-
leak bezala.

Goiko argazkian,
Anizko eliza. Lerro
hauen ondoan,
Berroetakoa. Biek
ere itxura ederra
hartu dute
moldaketen ondotik.



BAZTAN

multiservicios

AHOLKULARITZA ZERBITZUAK:

X Fiskala:

IVA, IRPF, Sozietateak

X Laborala:

Nominak, Autonomoak,
Altak eta Bajak

X Juridikoa:

Kontratuak

X Kontabilitateak

PISU-ETXEETAKO

ADMINISTRATZAILE LANAK:

X Urteko kontuak

X Eskailera eta portal garbiketak

X Gestio lanak

ETXEEN SALEROSKETA:

X Etxe eta lurren salerosketa eta alokairu zerbitzua

X Eskaera haundiagatik, baserri, borda eta etxeak erosi nahi ditugu.

Tfnoa. eta faxa: 948 58 05 06

Santiago, 51 • [ELIZONDO](#) • "La Asturiana" ondoan gaude



Kalitatea prezio egokian

ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra, 27 • Tfnoa: 948 637034

LESAKA

LOGELAK • EGONGELAK • TRESILLOAK • KUTXAK • BESAUULKIAK...

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak



BAZTAN

Herri lurretan belarsoroak egiteko 18 milioi terdiko aurrekontua

Nafarroako Gobernuak 11 milioiko dirulaguntza emanen du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduak Baztango herri lurretan soroak egiteko bi urterako proiektua onartu du. Aurrekontu osoa 18.515.178 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak %60a subentzionatuko du. Balleko Udalak, gainera, ez du diru hau -11.109.107 pezetatuzuli beharrik izanen. Aurtan 12.960.625 pezetako inbertsioa egingen da (7.776.375 pezetako dirulaguntzarekin) eta datorren urtean 5.554.553 inbertituko dira (Iruñetik 3.332.732 pezeta ordainduko dira).

Erabaki honen berri jakin bezain laster, proiektua egitea erabaki du Udalak. Langa kanadiarrak egin (3.594.704 ptako aurrekontuarekin), paretak altxatu (930.200 ptako aurrekontua) eta Orabideako pista moldatzeko (3.232.456 pt) lanak zuzenean emanen



Mariano Izetari Omenaldia

TTIPI-TTAPA FUNDATZIOAK lehen aldiz antolatutako Euskara Jardunaldien barnean omenaldia eskaini zitzaion Mariano Izetari, «euskararen alde egindako lana» eskertuz. TTIPI-TTAPAREN azala irudikatzen zuen oroigarria eta esker ona jaso zuen. TTIPI-TTAPA TB

dira, hiru enpresetan aurrekontuak eskatu ondoren. Zerrakurak egi-

teko lanak (8.204.000 aurrekontuarekin) hartzeko, aldiz, proposa-

menak aurkeztu behar du aldi bulegoetan.

Almandozko elizaren teilatua berritu eta aldareak txukunduko dira

R.A.

Orain dela 42 urte egindako elizaren teilatua berritu da Almandozen. Bi aldare, orduan berritu gabe gelditu zirenak, garbitu eta apainduko dira.

Gimnasia

Emakume talde bat astean bi aldiz gimna-

sia egitera hurbiltzen da Almandozko pilotalekura. Irakaslea elizondarra dute.

Argitasuna

Baztango herri gehienek argitasun ederra daukate gauze beren karriketan. Almandozek ez, zergatik? Udalaren eskutan dago, bainan noiz arte?

Eskolako teilatuak ere konponketak egiteko premia handia dauka. Haurrek min hartu baino lehen hobe izanen da konpontzea.

Mus txapelketa

Urtero bezala, Almandozko emakumeek mus txapelketa jokatuko dute. Nola ez, afaria ere izanen dute.

flash

Zerriak hiltzeko sasoia

Osasunbideak jakinarazi duenez, Iruriko eskualdeko hiltegiak izanen du lehentasuna etxerako zerriak hiltzeko. Asteazken eta ortzegunetan, goizeko 7,30etatik 1,30etara gan beharko da. Trikinosi probak egiteko puxkak berri, Elizondoko Osasun Zentroan bilduko dira, astelehenetik ortziralerara, goizeko 8etatik 12etara.

Margo erakusketa Arizkunenean

Amaia Aranguren, Ana Gorri eta Teresa Hernandez margolarien lanak ikusgai daude Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean abenduaren 7a bitarte. Ordutegia Kultur Etxeko ohikoak izanen da.

Ertamerikara laguntza

Mitch hurakanak Nikaragua, El Salvador, Guatemala, Honduras eta Costarican eragindako kalteak moldatzen laguntzeko 800.000 pezetako dirulaguntza igorri du Balleko Udalak inguru hartara.

ARGIBEL OPTIKA

© 948 581 391

Santiago 62 - ELIZONDO



Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

IZASKUN

MASAIA ZENTRUA

Kirol Masaia

- Besoa, ukalondoa, belauna, zurmiao

Bizi masaia

- Zerbikalak, lunbarrak

Erlajazio masaia

- Gibar kontrakzioak

© 948 581 399

Aita Donostia, 9 - I. ezk - ELIZONDO

BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
© 948 580373 • 908 776176


JATETXEA

© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galeria

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

SARA

Zenbait prima eskura ditzakete abeltzainek

Zirimolan Kultur ekitaldiak ziber-kafearekin bukatuko dira

MIXEL ETA JACQUELINE

Aratxeak behiaren azpian haziak izanez geroz departamendutik (erran nahi baita departamendu laborantza zuzendaritzatik) laborarik diru laguntza bat eskura dezakete. Heldu den urteko eskaerak azaroaren 30a aintzin pausatzeak izanki eta, berrogoi bat abeltzainek egin dituzte.

Bertzalde, Sara mendigune ekarria baita, diru laguntzak banatuak dira artalde eta betaldean arabera, lur eremua kontutan hartuz. Galdeen epea urtarileko finkatua da eta Herriko Etxera joan behar da horretarako. Iaz laurogoi bat laborarik laguntza hau jaso dute.


Bertze prima bat ere banatua da; hau ardiak dituztenei doakio eta orai-koan galdeak heldu den urte hasieran egitekoak dira. Erne beraz.

Iletegiaren hats berria...

Berrikitan, Iletegia izeneko eraikuntzan, saltegi berri bat zabaldu da eta Laborari du izena. Izenak dion bezala bertan aurki ditzakezu onkailu, hazi eta azienden janari ala pentsu.

Joste ikastaroak

Astelehenero arratsaldeko 2etarik 4ak arte, hamar bat dendari-gai biltzen dira Denen Etxean den gelan eta Eliane Luberriga da erakaslea.



Labaienen omenez antzerkiak bete du herria

Bi egunez sei antzerki emanaldi, bi mahainguru eta 'Luma kantariak' abesti eta irakurketa emanaldiak bete dituzte Herriko Etxea eta Omordia antzestokia. Azaroaren 21ean, Jean Haritzelar euskaltzainaren hitzaldiaren ondoren, Antonio Maria Labaienen 'Petrikillo' taularatu dute EATAEko antzesleek. Bazkalondoren Sorgin kontuak taularatu ditu Ereitz taldeak eta gaua alaitzeko Zumaia 'Kalakariak' soinu, argi eta dantzaz bete ditu Omordia txoko guztiak. Igandean, euskal antzerkiari errepasoa egin diote Mattin Irigoien, Nagore Aranburu, Xabier Mendiguren eta Txomin Heguyk. Ekekei taldearen 'Hiltegia' Xirixiti Mirixitiren 'Beherearka' lanarekin bukatu da asteburu hau. Oraindik izanen da zer ikusi eta zer ikasi Zirimolan Kultur Hamabostaldiaren barrenean. Igande huntan, goizeko 10etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 7etara ziber-kafe izanen baita Omordian. Arratsaldeko 5etan, berriaz, musika eta dantza inprobisaketak egingen dira Gazteen Etxean.

Surako egurra herriaren eskutik

Herriaren eskutik surako egur lotak erosi nahi dituztenek behar

dituzte izenak eman abenduaren 4a aitzin Herriko Etxean. Abenduaren 20an goizez, xortean atera eta jakinen

dute bakoitzak zein lota etxeratuko duen. Iaz 400 libera ordaindu behar zen, baina aurteaz ez dakigu.

Kulturkari Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egingen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzue!

☎ 948631188



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritzak, gaztainak, pinuak...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

ttipi-ttapa
internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Kutxa Kutxa Kutxa
txa Kutxa Kutxa Kutx



Kidetza berri bat!

Kutxa 7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

SENPERE

Euskaldunek Flandriarat egin duten bidaia arras ongi iragan da

25. Euskal Besta Oxtikenekoak elkartearen alde ospatu da hazil hastapenean

FRANCK DOLOSOR

Hazileko lehen aste-buruan hogoita hamabortz euskaldun gan dire Flandria bisitatzera autobusez. Han euskal besta izan da animazio ainitzekin, Peio Ospital kantaria, Azkaineko Pantxika Solorzano, Berako Irats taldeko trikitilariak eta Pantxika eta Maialen Alfaro. Flandriako historia eza-gutzeaz gain, posible izan da hango herriak bisitatzea. Euskaldunek hobekiago konprenitu dute Flandriako jende-en xedea beren lurral-dea independentea izate-a nahi luketelako. Han bizi diren momen-tu goxoak nehork ez di-tu ahantziko. Flandria-rrei milesker bihotzez... adiskidetasun hunek lu-zaz segi dezala!

Bidai huntan parte hartu duten euskaldu-nek elgarrekin afaldu ko dute Arbonako Aran-tzolan ortziraletan, aben-doaren 4an. Historio, oroitzapen eta ondoko-aren gisako argazki tru-katze izan dire hor giro goxoan.



Kontent itzuli dira euskaldunak Flandriatik

Saltegieta ere euskaraz

Kanpaina abiatu du-te Euskal Herrian Euskaraz eta Euskal Konfe-derazioa batasunek. Xede nagusia euskara saltokietan hedatzea da. Saltegieta jabeeri gal-detzen zaiote euskara erabiltzea ere seinaleti-ka eta publizitatean. Gauza inportanta da hau, ez delarik egiten erdara nagusitzen baita mintzatzeko ere. Eus-

karak presentzia haun-diagoa behar luke salto-kietan, denok jakiteko hor euskaldunak direla.

Bai euskarari

Euskararen aldeko kanpaina haundia ira-gaiten ari da Euskal Herria osoan. Lapurdin Euskal Konfederazioa bilduz XXI. giza-diko akordioaren inguruan. Hor batasun ainitz bil-tzen da, denak akort di-

re elkarlana haunditze-ko euskarari bideak za-baltzeko. Herrian ere bilkura publiko bat egin da Elkartetxean hazila-ren 27an. Bai Euskarari kanpaina abendoaren 26an bururatuko da Miarritzeko Agilera ki-rol zelaian egitekoa den besta haundiarekin. ETBren bidez, zuzene-an Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan izanen diren jaialdiak begira-tzen ahalko dire.

flash

ANPE lan agentziak

permanentziak pro-posatzen ditu Elkartetxean sen-pertarrak laguntze-ko. Ateak idekitzen dituzte astelehen goiz guziz 8,30ak eta 11,30ak artean. Xehetasunak deituz 0559518440ra.

Senpere-Tanzania

1989 urtetik senper-tarrek Tanzaniako 11 urteko mutiko bat la-guntzen dute dirua haratigorritz. Berriki herrirat gutun bat igorri du, senpertar guziak eskertuz bihotzez. Edison gaztetxoa aski kon-tent agertu da gutu-naren arabera.

Lehen eta bigarren jaun hartzea

Senpertar gaztetxo-ek lehen momunio-ne maiatzaren 23an eginen dute. Biga-rren jaun-hartzea as-te bat berantago iza-nen da, 30ean.



Donibane Lohizunen
Itsasoari begira

**Brouillarta
Ostatua**

Tel. 0559512951



ZUGARRAMURDI

Clown ikastaroa gaupasako antzerkia prestatzeko

Ruper Ordorika izanen da kantari abenduaren 4an

KORO ETA MARGARI

Lezeko gaupasan egiten den antzerkia dela eta, Clown ikastaroa egin da azaroaren 21-22ko asteburuan eskoletan. Ikastaro hau gan den ekainean egin zenaren jarraia da eta denetara 14 ordu izan ditu. Parte hartzaileak hamar izan dire eta gas-tuak erdizka egin dire

parte hartzaile eta Akelarre elkartearen artean.

SIDari buzuko solasaldiak

Kisulabe elkarteak eta COFESek antolatutarik HIES edo SIDari buruzko bi solasaldi eman dire Zugarramurdiko eskoletan azaroaren 23 eta 26an. Hitzaldi emailea Marta Ruiz izan



Zugarramurditik Lezetakobordara

Argazkia ageri den taldea gan den azaroaren 15ean Zugarramurditik Lezetakobordara (Otxondo aldean) gan zirenak dire. Denetara 20 lagun animatu ziren eta nahiz eta eguraldi sobera ona ez egin, lau orenez arras egin zuten bidaia. Gero hogoi hauei kotxez gan ziren bertze hamasei gehitu zitzaizen Lezetako-bordan bazkaltzeko.


zen, eta jendalde polita bildu zen.

❖ **Ruper Ordorika** kantaldia izanen

dugu herrian ortziral honetan, abenduak 4. Arratseko 10etan Kili-miliklik antzokian bere

azkeneko diska aurkeztuko du: "Dabilen harria". Sarrera 300 pta izanen da.

ASCAT  MN 
Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA



ENPRESENDAKO ASEGURUAK

*Pentsatu edozein ezbeharrek
zure enpresaren
eguneroko aktibidadea
kaltetzen ahal duela*

ASCAT-MNaren Aseguru-polizak soluzioa ematen dio
gisa honetako arriskuei:

Bandalismoa, suteak, isurketa kutsakorak, aktibidadea gelditzea, etab...

Informazio gehiago:



Parrokia 21
Tel.-Fax: 948 450266
DONEZTEBE



AUTO ESKOLA

Saskaitz plaza
Tel.: 948 580 077
ELIZONDO

EZKONTZAK

Luis Manuel Pereira da Silva eta Eveline Oronoz, Senperekoak, irailaren 25ean.
 Jean Claude Lamarque eta Beatrice Lacroix, Senperekoak, irailaren 12an.
 Michel Lauriathio eta Maider Arribillaga, Senperekoak, urriaren 9an.
 Joseph Idiart eta Nadine Vizcaino, Senperekoak, urriaren 10ean.
 Alfredo Jesus Irurzun Lekunberri eta M^a Luisa Nemours Iribarren, Burlatakoak Lekarozen, urriaren 10ean.
 Francisco Javier Urrutia Sanzberro eta M^a Angeles Iñarrea Rekarte, Elizondokoak, azaroaren 14an.
 Jean Paul Retegi Etxegarai eta M^a Joaquina Urriza Indart, Baiona eta Arizkungoa, azaroaren 14an.
 Francisco Javier Baleztena Monaco eta M^a Gloria Zamora Turrillas, Leitza eta Oiategikoa, urriaren 31n.
 Miguel Jose Zestau Urkiola eta Idoia Lertxundi Alkain, Leitza eta Aiakoa, azaroaren 14an.
 Bernard Raymond Zunda eta Marie Pierre Eratchu, Sara eta Esterenzubikoa, azaroaren 14an.
 Francis Leplus eta Brigitte Vanderbrouke, Sarakoak, azaroaren 18an.
 Frederick Dezmaizieres Belhart eta M^a Luisa Goñi Petrirena, Urruña eta Berakoa, urriaren 31n.
 Ainhoa Gonzalez Kastro eta Josetxo Gamio Lizasoain, Arantza eta Gaztelukoa, azaroaren 21ean.
 Eduardo Migelena Legasa eta M^a Jesus Mariezkurrena Deskarga, Igantzi eta Eratsungoa, urriaren 10ean.

JAIOTZAK

Xabier Goyenetche, Senperekoa, irailaren 7an.
 Jean Pierre Raguénes, Senperekoa, irailaren 29an.
 Baptiste Guarrigue-Bidot, Senperekoa, urriaren 18an.
 Andoni Galarregi Aleman, Gartzaingoa, azaroaren 7an.
 Bastien Sarie, Sarakoa, azaroaren 5ean.
 Saia Hiriart, Sarakoa, azaroaren 14an.
 Ania Dagerre Pikabea, Berakoa, urriaren 18an.
 Oihane Leiza Altzuart, Berakoa, urriaren 31n.
 Haizea Ayuso Iglesias, Berakoa, azaroaren 15ean.

ZORIONAK!

Oparia ematen
 lehenak
 izan nahi
 dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin bete, emanen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA

HERIOTZAK

Francisco Etxegia Perurena, Goizuetakoa, azaroaren 21ean, 83 urte.
 M^a Felisa Aranburu Bereau, Elizondon, azaroaren 10ean, 82 urte.
 Isidro Sagardia Astiz, Elizondokoa, azaroaren 14an, 73 urte.
 Mauricio Dagerre Etxandi, Elizondokoa, azaroaren 15ean, 85 urte.
 Juana Josefa Galarregi Ibarra, Sunbillakoa, azaroaren 18an, 89 urte.
 Rosalia Bengoetxea Gamietea, Arizkungoa, azaroaren 17an, 93 urte.
 Esperanza Larratxea Ariztia, Lekarozkoa, azaroaren 20an, 89 urte.
 Daniel Frances Beroiz, Elizondon, azaroaren 24an, 81 urte.
 Maria Urrutia Aleman, Doneztebekoa, azaroaren 13an, 88 urte.
 Miguel Ezkurra Altzugarai, Legasakoa, azaroaren 15ean, 86 urte.
 Terexa Barberena Irigoien, Zugarramurdikoa, azaroaren 18an, 52 urte.
 Bixente Trantxe Proenza, Igantzikoa, azaroaren 17an, 82 urte.



**Bidali TTIPI-TTAPA
 herritik kanpo
 bizi diren
 lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

(+34) 948 631188



Jon APEZETXEA TAPIA
 2. urteurrena (XII-3)

«Abenduaren 3an
 gure lagun Jon
 munduan galdua»



Hire lagunak



Ixilean sofritu zenuen, itxaropenean hil zara Zugarramurdiko

Terexa BARBERENA IRIGOIEN

Jaungoikoak eraman zintuen 1998ko azaroaren 18an, 52 urterekin. Bere senarra Joxe Angel Olaizola, seme-alabak Juan Migel, Juana Mari eta Dominique Lekuona.

Hamaika momentu on pasatu gintuen zurekin
 errex zitzaizun irria lortzea
 orain geratu gara zure irrifarrekin
 ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik
 izeba Terexa maitea

Zure iloba, Alizia Olaizola

DATUAK.....

1 Narbarteko Mitxel Aginaga bi aldiz suertatu da irabazle Nafarroako Mendi Duatloi txapelketan.

2 Azaroaren 22an Errioxan jokatzekoa zen Espainiako txapelketan parte hartzeko ilusio haundia zuen baina azkenean suspenditu egin zen.

3 Normalean mendi duatloi proba gutti izaten denez, mendi bizikleta eta lasterketa probatan parte hartzen du. Aurtengo Lizuniagako Igoera krossean adibidez, bigarrena izan zen.

4 Egunero entrenatzen du, korrika eta bizikleta tartekatuz.


 **Mitxel AGINAGA** *Narbarteko kirolaria*

“Bizikleta utzi eta berriz lasterka hasten zarenean da gogorrena”

Mendi Duatloia ez da jende aunitzek eza gutzen duen kirola, baina Nafarroako txapelketa oso-osorik gure inguruan jokatu da, Garzain, Amaiur eta Erratzun burututako hiru proben bitartez. Azken bi urtetan Nafarroako txapeldun suertatu den Mitxel Aginaga narbartearrak ematen digu kirolaren berri. «Haseran lasterka egin behar duzu borts bat kilometro, gero mendi bizikletan denetik –malda goiti, beheiti, zelaia...– duen 15-20 kilometroko zirkuito bat osatu behar duzu eta gero berriz, lasterka, bi kilometro terdi. Hori Nafarroan, Espainiako txapelketa lana bikoitza izan dugu». Kirol gogorra dela nabari da, «batez ere bizikleta utzi eta berriz lasterka egin behar duzunean. Hor hankak gogor-gogor eginak dituzu eta». Zenbaitzuen ustez, bi kirol hauek bateraezinak dira, baina Mitxelek garbi dauka. «Guk egiten dugu eta posible izanzen da!».

«KIROL GARESTIA DA»

Azaroaren 22an Errioxako Santo Domingo de la Calzadan jokatzekoa zen Espainiako txapelketan parte hartu behar zuen Mitxel Aginagak. «Lehen-



«Proba batean ongi eta bertzean gaizki ibiltzeak ez du balio»

dabiziko aldia zen eta gustora saiatuko nintzen, baina azkenean zenbait arazo izan eta suspenditu da». Bi kirol hauei dien zaletasuna medio hasi zen Aginaga duatloian. «Ttipitipitatik lasterka egiten nuen eta bizikleta ere maite nuen, lagunekin joaten nintzen

Tourra ikustera. Haseranez zen errexa, biprobetan ongi ibili behar baituzu, batean ongi eta bertzean gaizki ibiltzeak ez du balio... baina orain gustora».

Hurrengo pausua Triatloia izanzen zen, hau da, igeriketa ere bizikleta eta lasterketarekin batera sartzea. Hau ez da pausu errexa narbartearrentzat. «Joan den urtean bizpahiru triatloietan parte hartu nuen, baina laburrak ziren. Neretako trabarik handiena igerian egitea da, hori da zailena.

Denbora gehiago behar da entrenatzeko, igerilekua... ni duatloian gustorago ibiltzen naiz». Ia egunero entrenatzen du, bizikleta eta korrika tartekatuz. Denboraldia otsailan hasten du, proben egitarauari erreparatuz. «Uda arte probarik ez badago hasiera mantxo xamar egiten dut eta gero, probak hurbiltzen diren neurrian, entrenamenduak gogortzen ditut». Kirol garestia da eta horregatik laguntzaile baten beharra du Mitxel Aginagak.

» «Joan den urtean bizpahiru triatloietan parte hartu nuen, baina laburrak ziren. Neretako trabarik handiena igerian egitea da, hori da zailena. Duatloian gustorago nabil»

TESTUA ETA ARGAZKIA:
AITOR AROZENA

Felix Etxeberriak jantzi du Euskal Herriko bigarren mailako aizkolarien txapela

- Hamabi segunduko aldea atera zion Zeanuriko Iñaki Beitiari
- Patxi Mindegia ongi hasi baina bosgarren akitu zuen

Felix Etxeberria sunbildarra da Euskal Herriko bigarren mailako aizkolarien txapelaren jabe berria, Doneztebeko feria egunean jokatutako finalean nagusitu ondotik. Sunbildarrak 19'30" behar izan zituen bi kanaerdiko, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako bertze bi enbor mozteko, Zeanuriko Iñaki Beitiak baino hamabi segundu guttiago. Bi aizkolari hauek lehendabiziko mailan ariko dira datorren urtean. Iñaki Azurmendi bea-

saindarrak osatu zuen podiuma (20'17").

Patxi Mindegia zubitarrak ere parte hartu zuen final honetan. hasi, gogor hasi zen eta aitzinetik paratu zen bigarren enborrean. baina gero, alde batetik nekea eta bertzetik enborretan topatu zituen korapiloak zirela eta gibelera jo zuen eta bosgarren postuan akitu zuen bere lana (21'56"). Laugarren postua Zestoako Luis Txapategik erdietsi zuen (20'17") eta sailkapena Javier

Aranberrik itxi zuen. Hau Fausto Mugerza lesionatuaren ordeztu aritu zen.

Doneztebeko jaialdian, Donato Larretxea eta Mikel Mindegia arteko aizkol apostu ikusgarria ere egin zen, txapelketa baino lehen. Kanako (108 ontza) enborra nork lehenago moztea zen erronka eta 12 segunduren-gatik arantzarrak nagusitu zen.



Datorren urtean lehendabiziko mailan ariko da Felix Etxeberria

Enborra	54"	60"	72"	72"	60"	54"
1. ETXEBERRIA	1'22"	4'10"	8'54"	13'37"	16'53"	19'30"
2. BEITIA	1'42"	4'38"	9'35"	14'38"	17'50"	19'42"
3. AZURMENDI	1'29"	4'48"	9'14"	14'29"	17'43"	20'15"
4. TXAPATEGI	1'19"	4'07"	8'45"	14'39"	17'37"	20'17"
5. MINDEGIA	1'22"	4'00"	9'06"	14'34"	18'17"	21'56"
6. ARANBERRI	1'44"	5'02"	10'28"	17'04"	20'34"	23'54"

Aresorentzat izan da Nafarroako lehendabiziko sokatira txapela

- 680 kiloko kategorian nahiko aisa irabazi zion Beti Gazteri

Azaroaren 15ean burutu zen Larraizarren (Ultzama) Nafarroako sokatira txapelketaren lehendabiziko saioa, 680 kiloko finala, hain zuzen. Haseran Auzan jokatzea zen, baina euria zela eta, herri honetan pilotaleku estalirik ez dagoenez, tiralaria Larraintzarrera mugitu ziren. Bertan Aresoko taldea nagusitu zen, aurtengo lehen txapela eskuratu. Bigarrena Lesakako Beti



680 kiloko txapela eskuratu duen taldea

Gazte taldea izan zen, Txantrea hirugarren,

Imotz laugarren eta Ultzama bosgarren.

Espero bezala, lehia nagusia aresoar eta lesakarren artekoa izan zen. Gainerako tiraldi guztiak aisa irabazi zituzten bi taldeok. Euren arteko biak, berriz, aresoarrek eraman zituzten. Aipatu behar da, halere, lesakarek 40 kilo gutiago eman zituztela pisuan.

Aitzineko bi asteburuetan 640 kiloko saioak burutu dira. Azkeneko saioa abenduaren 3an izanen da.

Nafarroako sokatira txapelketan datozen tiraldiak

600 kiloko lehendabiziko jardunaldia abenduaren 5ean, goizeko 11tan jokatuko da Atarrabiako Lorenzo Goikoa polikroldegian. Bigarrena abenduaren 8an izanen da, oraindik zehaztu gabeko lekuan. Hirugarren eta azken jardunaldia, Latsako frontoian egingen da, abenduaren 12an, arratsaldeko 5etan.

Pisu ttikian (560 kilo) haundian bezala, jardunaldi bakarra izanen da, abenduaren 19 edo 20an, zehaztu gabeko lekuan.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MINTZALDIAK

BERA

► **Abenduaren 7an**
Kultur Etxean, UAGN
nekazal sindikatuaren
solasaldia. 12etan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Azaroaren 4an** Seed
taldeak joko du Kasino
ostatuan, gaueko
10,30etan.

► **Azaroaren 11n** Bol
taldea. Kasinon, gaue-
ko 10,30etan.

► **Azaroaren 18an** Oh
glaucon. Kasinon,
10,30etan.

LESAKA

► **Abenduaren 7an**
Atxaspin, Maixa eta
Ixiar, arratseko
10,30etan.

BERA

► **Abenduaren 5ean**
Alizateko frontoian,
arratseko 10etan,
Su Ta Gar, Latzen eta
Lisabo. Gazte Asanbla-
dak antolatua. 600 pta.

ERRATZU

► **Abenduaren 6an**
arratseko 10etan,
Ruper Ordorika. Bai
Euskarari kanpainaren
barnean. Etxeleberteko
Txokoa Elkartearen. Anto-
latzaile: Etxeleberteko
Txokoa eta Xorroxin.

ZINEA

LEITZA

► **Abenduaren 4an**
Torrente, el brazo tonto
de la ley, arratseko
10etan.

► **Abenduaren 6an**
Un ratoncito duro de ro-
er, arratsaldeko 4etan.

► **Abenduaren 6an**
Torrente, el brazo tonto
de la ley arratsaldeko
7etan.

AGENDA PRAKTIKOA

NEKAZARITZA



EGUNAK

Lesaka.....Abenduak 2
Etxalar.....Abenduak 4
Igantzi.....Abenduak 7
Arantza....Abenduak 10
Sunbilla ...Abenduak 10
DoneztebeAbenduak 11

Traktoreek ITVa pasatu beharko dute egunotan

Auto eta ka-
mioiek ez ezik,
traktoreek ere
ITV delako az-
terketa famatu
hori gaingitu be-
harko dute bai-
men guziak le-
geak agintzen
duen moduan
izateko. Zortzi
urte baino gehia-
go duten trakto-

re eta gurdi gu-
ziek herriz-herri
ibiliko den ITV
mugikorrari bis-
ita egin beharko
diote. Hango tek-
nikoek traktorea
goitik beheiti az-
tertuko dute: ar-
gia, direkzioa,
frenoak, gurpilak
eta kabina ongi
duten ikusi ondo-

tik beren eraba-
kia emanen dute.

Azterketa egi-
tera eraman be-
harko diren do-
kumentuak on-
doko hauek dira:
Traktorearen pa-
perak, zirkulazio
baimen edo per-
misoa eta azke-
nik, norberaren
NANA.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 1.800 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 97 pta./ki-
loa.
- **Zerramak**: 35 pta./kiloa,
bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanak
Extra550
1.koa520
2.koa480
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanak
Extra560
1.koa530
2.koa500
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg.
kanalean dauzkaten idixko eta 200-
250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 15.000 eta idix-
koak 28.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 30.000 eta idix-
koak 42.000 Pta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg.
Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg.
Kanal.

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
13:00	Herriz-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.) Bidegurutzean	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herri
21:30	Jokoa Solas		Bidegurutzean		Herriz-herri

CD Rom-ak



«Nafarroako euskalkiak»


Nafarroako Gobernu-
ko Hizkuntza Politikarako
Zuzendaritza Nagusia

Teknologia berriei esker, CD
Rom batean bildurik aurki ditzake-
gu Nafarroako solas modu
desberdin guztiak. Erronkari
edo Aezkoako euskara, Etxa-
rri Aranaz aldekoa, Iruñerrikoa,
eta baita Goi Nafarrera edo he-
mengo euskara ere aditu dai-
teke tokian tokiko jendearen aho-
tik. Horrekin batera erraten du-
tenaren transkripzioa eta ba-
tuan nola izanen zen ageri da

ordenagailuko pantailan. PC,
Mac edo Power Mac ordena-
gailuetarako prestatua dago,
eta erabiltzen aski erraza da,
eman beharreko pauso guztiak
pantailan seinalaturik baitau-
de. Azken produktua, egia erran,
ez da bikain-bikaina ere, bai-
nan hagitz baliagarria izan dai-
teke eskola edo euskaltegietan,
adibidez.

DATU ITURRIA: EHNE

Zatika ordaindu nahi duzue?



Gaur egun arras zabaldua dago erosten ditugun produktuak zatika ordaintzea. Izan ere, gehiago saltzeko asmoz nonahi ematen digute zatika ordaintzeko aukera hori. Honela, gehixeago ordaintzearen truke gauza aunitz erosten ahal dugu: altzariak, autoak, etabar.

Erosteko modu honek arazoak sor ditzake ordea, eta arazo horiei aterabideak bilatzeko helburuarekin lege berri bat egin dute. Etxebizitzak kenduta, zatika erosten ditugun gauza guzien gaineko legea dugu hau.

Dokumentazioa: Akordioa kontratuaren bidez burutu behar da nahitanahiez. Kontsumitzaileari eman behar zaion kopian agertu behar dute:

- Tokia eta eguna.
- Bi alderdien izen, abizen, NIF eta helbideak.
- Saldutakoaren deskribapena.

- Prezio osoa, hasieran ordaintzen dena eta maileguaren bidez ordaintzen bada, maileguaren kopuru osoa.

- Maileguaren "interes nominala" kalkulatzeko formu-

la, zenbat zatitan, zenbatero eta zenbat ordaindu.

- TAE delakoa.

- Erosleak ezin du saltzailearen baimenik gabe erositakoa saldu edo bota, ordaintzen ez duen bitartean.

- Enkantean erosiz gero, erositakoaren prezioa.

- Kontratoa bertan behera uzteko eskubidea:** Hau egiteko arauak.

- Zazpi egun baino lehen.

- Telegrama edo eskutitz zertifikatuaren bidez.

- Erabili gabea behar du.

- Itzultzeko gastuak eroslearen kontura.

- Itzultzekotan kontratua hitzartutako indemnizazioa ordaindu beharko dio erosleak saltzaileari. Indemniza-

Edozein kontratu utz dezakegu bertan behera, autoenak izan ezik.

zioa ezin da prezioaren %20-koa baino haundiagoa izan.

- Hartutako prestamoa ere bertan behera uzten ahal da, indemnizazioa ordainduz.

- Gogoan izan kontratua bertan behera uzteko eskubidea dugula, autoetan ezik.

- Edozein momentutan ordaintzen ahal dugu zorra kentzeko falta zaiguna.

- Aurreratutako diruaren interesak ezin dizkigute kobratu.

Publizitatea: iragarkietan prezioa azaldu behar dute, osoa nahiz zatika. Interes aldakorrek prestamo baten bidez erosten ahal bada, orduko interes motaren arabera prezioa kalkulatu behar digute.

Bere denboran ordaintzen ez badugu saltzaileak falta dena kobratuarazi edo kontratua bertan bera utz dezake. Hori eginez gero saltzaileak erosleari ordaindu duena emanen dio, indemnizazio bat eskatzeko eskubidea izanen duelarik.

IRATXE KONTSUM. ELK.

AGENDA EGUNEZ EGUN

ZIRIMOLAN

BERA

Abenduaren 3an

Herri Telebistei buruzko mahaingurua. Gonbidatuak: ttipi-ttapa TB, Oarso TB eta Elebista. Arratseko 9etan lamotenean.

BERA

Abenduaren 4an

Kontzertuak Alizateko estatuetan. Bidaxkan, Gestionik (9etan), Zizkan Zaund (10etan) eta Puin Katoen + D.J. Babin. Sorpresak ere izanen dira.

SARA

Abenduaren 6an

Ziber-kafea Sarako omordia salan. Goizeko 10etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 7etarako.

KULTUR EGUNAK

IGANTZI

Abenduaren 4tik

8ra xehetasunak Igantzi kronikan. Aipatu azken egunean etxeko produktuen erakusketa eginen dela. Talo eta sagardoa izanen da berentzeko.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

Abenduaren 30etik abenduaren 6ra

Igantzi, Ituren, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

Abenduaren 7tik

13ra Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

Abenduaren 14tik

20ra Etxalar, Narbarre, Urdazubi, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

DISKAK



**«Ahuen sinfonikoa»
BENITO LERTXUNDI &
EUSKADIKO ORKESTRA
SINFONIKOA
ELKARLANEAN**

Tolosaldean aurten egin den Kilometroak 98ko antolatzaileek elkartu zituzten lehenbizikoz Benito eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Lehen hartu-eman hartan sortu izanen zen, seguraski, orain argitaratu den diska honen hazia.

Kantuak Benitok berak aukeratu ditu, baina konponketak Enrike Ugarteren esku egondu dira. Berak zaindu ditu, ha-

laber, ahots, edizio, nahasketa eta masterizazio prozesuak. Auhon sinfoniko honek musika klasikoa eta herrikoia uztartzen ditu besarkada goxo batean. Benitoren ahots erakargarria orkestraren dentsitate musikalaz jantzia eta kolorez hornitua ageri da abesti guztietan. Aipatu behar da diskoa aurkezteko zuzeneko hiru emanaldi bertzerik ez dituztela egin.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko

zein erraza den
zure anuntzioa
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/igeltseroak
202. Pintoreak

203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdut / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ERNE!

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu beharko da hemendik aitzinera, eta ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezeta Rural Kutxako kontu honetan sartu eta justifikantea guri bidali behar diguzue: 3008 0080 53 0200014973 Lan eskaintzak, Animaliak, denetarik eta harremanak sailek, ordea, dohainik izaten segituko dute.

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BULDAIN

LEITZAn, oso txukuna dagoen pisua salgai, Amazabal kalean. Bista politik.

☎ 989 232 912
☎ 948 510 167

11 milioi
pezeta

BULDAIN

ELGORRIAGAn, borda salgai, 7.000 m²ko lur-eremuarekin.

☎ 989 232 912
☎ 948 510 167

2,6 milioi
pezeta

BASERRIA SALGAI



☎ 948635060

ETXALAN: Baserri salgai, eta inguruko inguruetan (sare eta mendiak). Ondoak eta mendiak.

BERA. Pisua salgai Age-rra auzoan. Urruña plaza 3., bigarren pisuan. 4 logela, egongela, sukaldea... ☎ 948 630 412.

LESKA. Albistur karrikan pisua salgai. 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta egongela. ☎ 948 637 229.

BERA. Postetxe gainean pisu bat bere garajearekin, hagitz polita, salgai. ☎ 948 451 841.

LESKA. Pisua salgai Bittiria karrikan. 3 logela, sukalde ekipatua, egongela, bainua eta trasteroa. ☎ 948 625 305 (Agustin, 12etatik 15etara)

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

BULDAIN

LEITZAn, salgai dauden pisuak behar ditut, eskaera haundia dudalako.

☎ 989 232 912
☎ 948 510 167

Borda bat erosi nahi da, edozein egoera eta tokitan. ☎ 948 451 841.

DONEZTEBE. Pisua erosi nahi da Elizagibela karrikan. ☎ 908 77 86 53.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

LEITZA. Pisua ematen dut errentan. Oso ongi moblez-tatua, kalefakzio eta ganba-rekin. ☎ 948 510 194.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

BARAÑAIN. Bi pertsona behar ditugu pisua osatzeko. ☎ 948 581 383.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

DONEZTEBE. Erdigunean 100 m²ko bajera komertziala salgai. ☎ 948 450 308.

LESKA

Denda salgai Herri erdi-erdian, martxan dagoen janaridenda tras-pasatzen da. 70 m². Informazio pertsonala.

☎ 929 010 790 (arratsaldetan)

ROMANO DEKORAZIOA

120 m²ko lokala salgai BERAn.

7 metroko erakustokia, guztiz ekipatua.
Legia, 1
☎ 948-631137/630948

GARAJEAK/LOKALAK

108 EROSI

LEITZA. Bajera bat nahi dut. ☎ 948 510 194.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

DONEZTEBE. Errentan emanen nuke 80 m²ko lokala. ☎ 948 450 383 (Maritxu).

GARAJEAK/LOKALAK

110 ERRENTAN HARTU

BERA. 200-500 m² arteko lokala hartuko genuke errentan. Laborategi bat antolatu nahi dugu produktu dietetikoak, kosmetikoak eta elikagarriak egiteko. Ez da kutsakorra. Idatzi helbide honetara: Prof. G. Jauvais, 43 Av. des Dunes. 64.600 Anglet. France.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALGAI

IGANTZI. Bentatan, terreno industrial eta etxea erakitzeko aukerarekin salgai.

LURRAK/ORUBEAK

113 EROSI

☎ 908 77 86 53.

Arraioz eta Mugaire artean lur eremu bat erosiko

LANA

301 ESKARIAK

nuke. ☎ 948 451 841.

Erizaina naiz, eta edade-

ko jendea edota zainketa bereziren bat behar duen jendea zorionduko nuke. ☎

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

948 397 039 edo 943 675 502.

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Trikitixa taldea osatzeko baju bat behar du. ☎ 948 450 971.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 948 63 07 63

Opel Cadett GSI salgai.
NA-AC. ☎ 948 510 550
(gauez).

C-15 bat erosiko nuke, ego-
era onean badago. ☎ 948
510 550.

ANIMALIAK

601 OPARI EMATEKO

Gas-gas trialeko motoa sal-
gai, 97. urtekoa. Berri-be-

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

rria dago. ☎ 948 637 834.

Collie beltza emanen nu-
ke opari, 2 urtekoa. ☎ 948
580 520 (eguerdian).

93 ardiren deretxoak sal-
gai. ☎ 948 387 087 (gaue-
ko 8etatik aitzinera).

Husky siberiarra salgai. ☎
948 450 826 edo 929 052
749.

Hiru urteko ahari mutur go-
rria salgai. ☎ 948 637 569.

Bi **zerri gizen** salgai, 120
kilokoa bakotxa. ☎ 948 634
093.

MOTORRA

502 TAILERRAK

BERABI tailerrak
☎ 948 631 445-BERA

Bigarren eskuko autoak
Nissan Patrol 4 zilindro
Nissan Patrol 6 zilindro
Renault 21
Citroen BX 1.4 polita

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Golf GTI, R11 D. eta
gasolina, Opel Frontera,
Panda, Land Rover Defender
Suzukiak: Vitara eta
Samurai aukeran.

GANIX
Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Urte-txerriak salgai. ☎ 948
510 277.

Haragitarako **aretxeak**
erosten ditugu. ☎ 948 450
160 (Luis).

Etxeko giltzak galdu ditut
Beran, Agerrako futbol ze-
lai inguruan. ☎ 948 630 290.

Giltzak galdu ditut Beran.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

☎ 948 631 280.

Mendi bizikleta urdinxka
aurkitu nuen duela hilabe-
te inguru Lesakan. ☎ 948
637 433.

Kerosenozko **berogailua**
salgai. ☎ 948 453 110.

Teila xabalak salgai,
1.000tik goiti. Merke. ☎ 948
581 023.

Trialeko ekipoa salgai: bo-
tak, galtzak, kamiseta,
guanteak eta faja. ☎ 948
634 037.

Sukalde kalefaktorea sal-
gai, bere tankearekin. Be-
rri-berria dago. ☎ 948 581
395 (arratsetan).

Ehun litrotako **termo elek-
trikoa** salgai. ☎ 948 510 498.

Hiru logelako mobleak sal-
duko nituzke, bizpahiru al-
diz bakarrik erabiliak. 90
zmko ohatzea, armarioa,
mesanotxea eta aulkia du
bakoitzak. ☎ 948 451 920.

100 litroko **esne tankea** sal-
gai. ☎ 948 637 569.

Baserriko **ilarbeltza** salgai.
☎ 948 634 093.

Garagar eta gari lastoa
salgai, paka haundietan. ☎
607 457 004.

1.800 litroko **zisterna trak-
zioduna** salgai. 9.900 Agria-

HARREMANAK

801 AGURRAK

rendako espresa. ☎ 948
452 205 (Irurita).

Gasoil estufa bat eta ur
berogailua salgai. Merke.
☎ 948 635 003.

Zorionak Etxalarko Sara
Garcia, azaroaren 24an
22 urte bete dituelako. Mu-
xu haundi bat zure lagunen
partetik. (B).

Urdazubiko **Laura**
Caminori: zorionak hama-
sei urte bete dituzulakoz.
Segi beti bezain alai eta
"salsera". Urdazubiko la-
gun baten partetik.

Arizkungo **Kotteri** (Josetxo
Etxeberria): zorionak zure
urtebetetze egunean. Fal-
tan botaten zaitugu. Aupa
Kotte. Zure joan den urte-
ko klasekoen partetik.

Gorostapaloko Zipiri: noiz-
baitere utzi diozu haurra
izateari. Zorionak behingoz
hamazazpi urte bete
dituzulakoz. Ea noiz ekar-
tzen diguzun "Zubipunta-
music". Aupa 2. BAG-Akla-
seko "tonto"ena, ea noiz
espabilatzen zaren. Zure
klasekoen partetik.

Bibiano Gortariri: zorio-
nak Arizkungo familiaren
partetik, bereziki Ainhoa-
ren partetik. Muxuak.

Zorionak **Amairuko Josu-
ne Maizterrenari** azaroa-
ren 12an 17 urte bete di-
tuelako. Muxu haundi bat
Leitzako familiaren parte-
tik.

Zorionak **Pelox**, zure ikas-
kideen partetik.

Mikel R.ri: jarri lentilak, ez
baitzait gustatzen inork ni-
re kuadernoan begiratzeko,
eta moztu koleta hori!
Zuk dakizunaren partetik.

Lalen Kotetori: animo Agi-
ñako jautsieran!

Pakea: DBHko ikasleak on-
gi tratatu, bertzenaz...



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali seiloak eta sobrea zure helbidearekin.



**Alaitz Alzuga-
rai** lesakarrak 8
urte bete ditu
abenduaren 1ean.
Zorionak atta, ama
eta bereziki
Iñigoren partetik.



**Laurendi Ze-
laieta** elgorriaga-
rrak 3 urte beteko
ditu abenduaren
9an. Zorionak aita,
ama, Ugutz eta Ga-
raileren partetik.



**Eneko Espar-
za Txueka** le-
sakarrak azaroaren
23an 2 urte bete
ditu. Zorionak! Ira-
txe, guraso, Fermin-
a Luzio eta Xabi.



Benavente **Je-
sus Viforcos**ek
50 urte egin ditu
azaroaren 25ean.
Zorionak emaztea
eta Lesakako
famiariaren partetik.



**Xabier Fagoa-
ga Maia** lesaka-
rrak 11 urte bete-
ko dituz abendu-
aren 3an. Zorionak
famiariaren eta bati-
pat Oihanaren par-
tetik. Aupa Fago!



Arantza **Juana**
Unsainek abendu-
aren 28an 83 urte
bete ditu.
Zorionak zure
familia eta bereziki
Igorren partetik.
Aunitz urtez.



Colorado dagoen
Patxikito
abenduaren 12an
urteak beteko di-
tu. Zorionak bere
famiariaren partetik.
Laster arte.



Beñat **Txope-
reña Matxi-
kote** igantziarrak
7 urte beteko ditu
abenduaren 8an.
Aunitz urtez eta
muxe bat. Atta,
ama eta Oihana.



Mikel
Oñartzabal
Rodrigex
goizuetarrak 11
urte bete ditu
azaroaren 30ean.
Zorionak
famiariaren partetik.



**Juan Rodri-
gez Gogorza**
goizuetarrak
azaroaren 19an
bete zituen urteak.
Zorionak Arkaitz
eta Mikelen
partetik.



Ximun Garzia
Basurko sarata-
rrak azaroaren
21ean bete ditu 14
urte. Zorionak eta
muxe bat aita, ama
eta famiariaren
partetik.



Zorionak Colora-
don bizi den
Patxikito
Iriarteri
abenduaren 13an
bere ama eta
seidearen partetik.
Laster arte!



Garazi Retegi
altsasuarrak urria-
ren 29an bete ditu
urteak. Zorionak
guraso, ahizpa Le-
sakako ataxi, ama-
txi eta Igantziako
ataxiren partetik.



Maite Sanz
Ganzo
beratarrak 45 urte
beteko ditu
abenduaren 4an.
Zorionak Jaione,
Jone eta Jose
Mariaren partetik.



Titino Etxabe
Ladera
zagarramurdiarrak
35 urte bete ditu
abenduaren 3an.
Zorionak Jaione
eta Jose Mariaren
partetik.



Jose Mari
Etxabe Sanz
beratarrak 7 urte
beteko dituz aben-
duaren 7an. Zorio-
nak aita, ama, Jone
eta Jaioneren
partetik.



Juana Unsan
arantzarrak 83
urte bete ditu
abenduaren 2an.
Zorionak
famiariaren eta
bereziki Igorren
partetik.



Jon Olaizola
Otxoteko
lesakarrak 2 urte
beteko dituz
abenduaren 8an.
Zorionak eta
muxe haundi bat
famiariaren partetik.



**Xabier Espe-
losin** sunbilda-
rrak 8 urte beteko
dituz abenduaren
4an. Zorionak
famiariaren eta
lehengusuen
partetik.



**Ane Apezet-
xea** goizuetarrak
7 urte egin dituz
abenduaren 3an.
Zorionak eta musu
haundi bat
etxekoaren partetik,
pottoka.

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptko 6 seilu (210 Pta./8 libera) eta
sobre bat bidali behar da. Gainerakoan ez dira argitaratuko.
Argazkiak TTPI-TTAPA TELEBISTAN ere aterako dira.



Ane Gurrutxaga Errandonea
lesakarrak 2 urte beteko ditu abenduaren 10ean. Aunitz urtez familiaren partetik.



Xabier Maritxalar Errandonea
lesakarrak 10 urte beteko ditu abenduaren 8an. Aunitz urtez familiaren partetik.



Iñaki Zabaleta leitzarrak 4 urte bete ditu azaroaren 15ean. Urte askoz. Familia eta bereziki Axun lehengusua partetik.



Oronoz-Mugairiko **Yoli Ustarroz** 23 urte bete ditu azaroaren 27an. Zorionak suge gorria eta gainerakoan partez.



Oronoz-Mugairiko **Asun Esartek** 25 urte bete ditu azaroaren 28an. Zorionak Kuku eta bertzeen partez.



Luis Miguel Garcia Zozaia doneztebarrak 18 urte bete ditu azaroaren 25ean. Zorionak!



Baraiaingo **Nekane Zelaleta Gilek** 12 urte beteko ditu abenduaren 2an. Zorionak familiaren partetik. Muxu aunitz, dantzari!



Xabier Ariztegi lesakarrak 25 urte beteko ditu abenduaren 3an. Zorionak eta egun on bat pasa. Muxu haundi bat. Aitziber.



Maria Jesus Zubieta lesakarrak 21 urte bete ditu azaroaren 24an. Zorionak potxola, zahartzen ari haiz! Ja, ja, ja. Hire auzoko ero bat.



Isidoro Goia arantzarrak urteak bete ditu azaroaren 15ean. Zorionak familiaren partetik.



Tomas Goia eta Meliton Goia Arantza eta Tolosakoek urteak bete dituzte azaroaren 16an. Zorionak familiaren partetik.



Ahielene Urrizak azaroaren 20an 8 urte bete ditu. Zorionak familiaren eta Jonen partetik.



Ruben Pedrosa Medina beratarak 5 urte bete ditu azaroaren 30ean. Zorionak potxolito. Clara, Leire eta Mimaren partetik.



Iñigo Apezetxea arantzarrak abenduaren 2an 12 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik. Txintxo izaten hasi.



Ramon Apezetxea Zubiri goizuetarrak urteak egin ditu azaroaren 9an. Zorionak etxekoan partetik.



Patziku Apezetxea Loiar goizuetarrak 28 urte bete ditu azaroaren 30ean. Zorionak familiaren partetik. Aupa Pitz!



Aitor Alzugarai Zubiri lesakarrak 2 urte beteko ditu abenduaren 3an. Zorionak familiaren partetik.



Aritz Arratibel beratarak 2 urte beteko ditu abenduaren 13an. Zorionak ama, aita eta Asierren partetik.



Jabierto Arriola Perezek 4 urte beteko ditu abenduaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



Mirenek 6 urte bete ditu azaroaren 28an. Aunitz urtez Larra eta Bibiren partetik.



Mikel Goiene txek etxalartarrak 17 urte bete ditu azaroaren 25ean. Zorionak Miren, Joseba eta familiaren partetik. Aunitz urtez!



Aritz Mendiberri donamariarrak 3 urte beteko ditu abenduaren 3an. Zorionak familiaren partetik.



Jexu Lukanbio arantzarrak abenduaren 31n beteko ditu urteak. Zorionak familia guziaren partetik. Pastelak eta txanpaina prestatu.



Rosa Otxoteko lesakarrak abenduaren 3an beteko ditu urteak. Zorionak familiaren eta bereziki Jexuren partetik.



Aintzane Pikabea arantzarrak 10 urte bete ditu azaroaren 21ean. Aunitz urtez familia guziaren partetik.



Agustintxo Arrastio Delhiero San Frantziskokoak urteak eginen ditu abenduaren 13an. Zorionak familiaren partetik.



Migeltxo Arrastio Delhiero San Frantziskokoak urteak eginen ditu abenduaren 25ean. Zorionak familiaren partetik.



Alicia Aleman EEUUn dagoen elizondarrak abenduaren 10ean beteko ditu 25 urte. Zorionak familiaren partetik eta ongi pasa eguberriak.



Unai Igoa Migeltorena beratarak abenduaren 8an beteko ditu 6 urte. Doneztebeko amatxi eta atautxiren partetik aunitz urtez.



Naiara Igarabide erratzuarrak abenduaren 9an 5 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat bere Arantzako familiaren partetik.



Andoni eta Mikel Cenoz Verdú urdazubitarrek urte bat eta zazpi urte bete dituzte azaroaren 2 eta 11n. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta familia guziaren partetik. Aupa pottokos!



Juan Jose Irigoienek abenduaren 2an bete ditu urteak. Zorionak lagunena eta familiaren partetik. Txanpain botilaren zain gaude.



Belen Irigoienek abenduaren 2an bete ditu urteak. Zorionak lagunena eta familiaren partetik. Txanpain botilaren zain gaude.



Ainarak urteak bete zituen joan den urriaren 24an. Zorionak Julien eta familiaren partetik.



Elko-Nevadako Michele Igoak abenduaren 26an beteko ditu 4 urte. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Patxi Duarte Huesok abenduaren 3an bete ditu 19 urte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Carolina Gomez Yanci beratarak 13 urte beteko ditu abenduaren 4an. Zorionak kuadrilaren partetik.



Ele Orderiz astigarragakoak 80 urte beteko ditu abenduaren 3an. Zorionak amona! Berako familiaren partetik.



Martina Baleztena eta Imanol de Rueda Goñik urteak beteko dituzte abenduaren 8an eta urtarilaren 4an. Zorionak familiaren partetik eta muxu aunitz.



Josetxo Baleztenak urteak beteko ditu abenduaren 14an. Saldiaskoa da. Zorionak eta animo iloben partetik. Muxu bat.



Jabier Eskudero goizuetarrak urteak bete ditu azaroaren 19an. Zorionak familiaren partetik.



Joaquin eta Inmak urteak beteko dituzte abenduaren 8an. Zorionak familiaren partetik.



Maitetxu Goia Irazoki beratarak 11 urte bete ditu azaroaren 25ean. Zorionak Dunia, Marilis eta familiaren partetik.



Batixta Telletxeak abenduaren 16an 85 urte beteko ditu. Zorionak atabix!



Jaione Rodriguez Etxeparek abenduaren 4an 3 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Maria Jesus Zubieta zorionak zure 21. urtebetetzean. Txanpaina eta pastak prestatu. Clan Estazon.



Mikel Petirena
Sunbillakoa, 42
urte. Haragi
behiak ditu eta
sindikatu
idazkari oroko-



Juanito Arretxea
Gartzaingoa, 50
urte. Esne
behiak ditu eta
Gurelesa koope-
ratibakoa da.



Patziku Irisari
Etxalarkoa, 29
urte. Pinu hazlea
eta sindikatu
arduraduna
Bortzirietan.



Jose Javier
Remon. 'Zufi'
Etxalarkoa, 41
urte. Albaiteroa
eta pinu hazlea.



Mariado
Migeltorena
Donamariakoa,
34 urte. Esne
behiak ditu eta
EBEL emakume
elkarteko presi-

Eutsi baserriari



EHNE



*Nekazaritzak badu eorkizunik.
Zure eskuetan dago une honetan*



Elduaaien

HIZKUNTZA ESKOLA


☎ 948 510635

Elbarren, 20 - 1. • 31880 LEITZA

Leitzara iritsi da

Ingelesarekin arazoak eskolan? Elduaaien Hizkuntza Eskolan arazoei aurre egiten lagunduko dizugu.

Trinity, Cambridge, E.O.I. eta beste azterketa ofizialetarako prestaketa berezia egiten da.



1996. urteko
zerbitzu onenaren
aintzindari

